



**SÁBADO 8 MARZO**

A partir de las 23:30h.  
Sala ROCKSTAR en  
Megaperik, BARAKALDO.



**PLAYBOY  
IN THE HOUSE**

*The sexiest  
party in  
Europe*

FEATURING

**DJ SIMONE**

WARM UP: LU-X PROJECT + B.B.D.

MINI ROOM: GORKA UNDERS

PRECIO anto: 10€ - Tarjetilla 15€ - 5€

**THE ONE AND ONLY**

[www.salarockstar.com](http://www.salarockstar.com)

[www.realsoundsystem.com](http://www.realsoundsystem.com)


[www.myspace.com](http://www.myspace.com)

Prohibido  
LANZAR

BA  
LA CAS

Bilba


DEIA





**UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA**

**ARGITARATZAILA:** Boluntzarreta Elkarte  
**HELBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171 / Tf. 94 491 13 37  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan, Ainhoa Lores  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega  
**KOLABORATZAILAEK:** Jorje Perez, Bittor Egurrola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
**MARRAZKILARIA:** Dogan Gozel  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martinez (94 491 13 37)  
**KANPO HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
 © Boluntzarreta



**ERAKUNDE LAGUNTZAILAEK**


Aldizkari honek Euzko Jauriritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

**Non zer**

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. *El sexto sentido* pintxoa, Ugartena taberna.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Goierriko eliza, Erandio.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Jon Elorriaga.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

**SAKONEAN**

- 26. ALBUMA. Euskarashowa.
- 28. ARGAZKIA. Ereaga hondartza XX. mende hasieran.
- 30. BERBETAN. Imanol Alvarez.
- 34. FOTOGRAFIA. Oskar Martinez.


**KULTURA ETA AISIA**

- 42. ZINEMA. Ikastaroak EHuko Leioako Kanpusean.
- 43. MUSIKA. Bilbao Live Jaialdia. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Euskal poesia erotikoren antologia. Erreseinak.
- 45. KIROLAK. Piraguismo ikastaroak, Getxo Kayaka.
- 46. ELKARRIZKETA. Elijah Cartwright.

**AMAITZEKO**

- 49. NORA JOAN. Sentinel Rock Club, Erandio.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Simon Otxandategi Dantza Taldea, Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Xabi Solano.


Azala: Oskar Martinez




30 Imanol Alvarez

**Berbetan**

EHGAMeko sortzaileetako. Sexu askatasunerako bidean aurrera bagoaz ere, asko dugu egiteko.



11 Jon Elorriaga



54 Xabi Solano

**www.renaultleioa.com**

**Leioa Berri Auto**

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria eta hartu txanda on-line [www.renaultleioa.com](http://www.renaultleioa.com)

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA Tf. 94 480 46 02 • Faxa: 94 480

NAZIOARTEKO ARGAZKI JAIALDIA. IRAILAK 10 - URRIAK 11 2009  
 FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOTOGRAFIA. 10 SEPTIEMBRE - 11 OCTUBRE 2009

antolatzailea / organiza      babesleak / patrocinan      laguntzailea / kolabora

**Leihatila**

&gt; Aiala Elorrieta

**Aireportuan**

British Airways, Erresuma Batuko hegazkin konpainiarik handiena dugu, bigarrena Europan. 70eko hamarkadan sortu zen beste konpainia biren bategitearen ondoren. Izaera publikoa izan zuen, 1987an pribatizatu zen arte. Hala ere, asko dira mantentzen dituen pribilegioak, eta Londresko Heathrow aireportuan jaun eta jabe izaten jarraitzen du. Aireportu honetan, milaka pantaila daude hegaldien informazioagaz. Parisa doan hegazkina irteteko, 12 minutu. Jarraian, beste datu bat: time for shopping 9 minutes, 9 minutu erosketak egiteko. Bitxia da, krisi garaian ere, mezua argia da: kontsumitu, azken minutura arte! Bitxiagoa da baina, British Airways konpainiak krisiari aurre egiteko topatu duen bidea. 30.000 langileri email bitartez ez die eskatu bada, hilabetez soldatari uko egiteko? "konpainiaren biziraupenerako". Bankuakaz gertatu dela ikusi dugu: garai oparoa denean, ez da gizarteagaz banatzen, baina "larrialdietan", gizarteak eta langileek laguntzeko prest egon behar dute. Baina lasai egon gaitzake, konpainiako presidentek keinu eredugarria izan du. Uztaileko soldatari uko egiteko prest agertu da, 72.700 eurotxo.

**gu geu****Udako lan egun ilegalak**

Telebista saio eta aldizkari ezagunenek, urteko (edo azken hamarkadako) modako berba aukeratu beharko balute, biren artean egon litzateke lehia: gatazka eta ilegala. Telebista eta egunkariak, zein pentsalari-pentsalarienek, edonon aurkitzen dute gatazka: Hondurasen, Euskal Herrian, eskoletan, parlamentuan... Bestalde, badago puntadun zapatak baino arrakasta handiagoa izan duen joera: ilegalizatzearena. Alderdi politikoak, egunkariak, musulmanek buruan eroaten duten zapia, elkarteak, argazkiak... zertarako lagun artean ondo pasatu, horiek guztiak ilegalizatzen egon gaitzkeen bitartean?

UK-kook ilegalizazioaren modagaz bat egitea erabaki dugu. Baina ez dugu inondik inora zapien edo argazkien kontra egingo. Gure energiak gauza zentzuzkoagoak debekatzen emango ditugu. Lehenengo eta behin, udako lan egunak ilegalizatzen hasiko gara. Eguzkiak lar berotzen duen egun horietan, ezin da bulegoan, tailerlean, zein beste edozein lantokitan egon. Hondartza, mendia, herriko plaza eta tabernetako terrazak izango dira egun horietako gune "legal" bakarrak. Aspertzea ere "ilegala" izango da. Eta epaitegietatik pasa behar ez izateko, zenbait proposamen ematen dizkizugu 160. ale honetan: herrietako jaiak, bertso-saioak, musika jaialdiak... Ilegalizatzen bazaituzte, ez da gure errua izango.

**UK-ko lantaldea****Iritzia**

Irakurle gazte batek gure erredakziora bidalitako eskutitza duzu ondoko hau. Zure kexari ondo etorria egin diogu UKn. Eskerrik asko, June!

**Arrigunaga: ondo pasatzeko ala arazoak sortzeko?**

Hamabost urteko neska algortarra naiz, eta sarritan joaten naiz Arrigunaga hondartzara. Joan den asteburuan gertatutako arazo baten

«**Ertzaintza edo Udaltzaingoa erneago egon beharko liriteke zapaturo, Bidezabal eta Arrigunaga aldetik**»

gazte asko joan ziren Algortako Arrigunaga hondartzara edatera eta ondo pasatzera.

Gazte gehienok dakigunez, ia astebururo egoten dira borrokak, iskanbilak eta halakoak hondartzan.

harira idazten dut. Zapatuan, astebururo bezala (dagoe-neko ohitura bihurtu da hondartzara edatera joatea) herriko eta inguruko

Ertzaintzak eta Udaltzaingoa ere ondo daki hori; beraz, nire ustez, ezer gertatu baino lehen, eta inork deitu baino lehen, ertzain pare bat bidali beharko lituzkete Arrigunagako gune horretara, eta beste bat supermerkatu batzuen ateetara. Izan ere, debekatuta egon arren, denda askok saltzen diete alkohola hamazortzi urtetik beherako gazteei.

Joan den zapatuan, adibidez, hamairu eta hamasei urte arteko neska-mutil mordoa alkohol-botilaz betetako plastikozko poltsakaz joan ziren hondartzara. Egundak horretan hamasei urte inguruko neska batzuek sortu zuten iskanbila; indarkeria erabiliz, beste neska batzuei zenbait gauza lapurtuz. Norbaitek larrialdietako deia egin ostean heldu zen ertzaintza, eta zegoeneko, lapurretako pare bat neskek alde egin zuten, beste bi edo harrapatu arren.

Adibide gisa, joan den asteburuan izandako gatazka jarri dut; baina askotan joan da anbulantzia norbait mozkor-mozkor eginda zegoelako, edo ertzaintza mutilen batek beste bat jo duelako... Hondartza zein zikin uzten duten ez aipatzearen, botila eta plastikozko poltsaz beteta.

Beraz, nire iritziz, ertzaintza edo udaltzaingoa erneago egon beharko liriteke zapaturo, Bidezabal geltokia eta Arrigunaga aldetik, ez baita kome-nigarria zer edo zer gertatu arte itxarotzea, azkenean, larria den zerbait gerta daitekeelako, eta hori ekidin behar da.

**June Larrinaga**  
(Ikaslea)


"EL SEXTO SENTIDO" PINTXOA

**Zentzumen guztiakaz dastatu/** Pintxo eta zinea bat eginda aurkitu ditugu ekainaren 24tik 27ra, Getxoko hainbat tabernatan. Kasu honetan, dastatu bai, baina gainontzeko zentzumenak ere lanean ipini eta *El sexto sentido* izenagaz datorren pintxo dastatzeko aukera dakarkizugu. Algortako Ugartena tabernan zerbitzatu duten pelikulazko pintxo hau Cinegourlan jaialdiaren barruan aurkeztu da, baina ez da bakarra izan *Alguien volo sobre el nido del cuco* Goiezi erretegiaren edo Aterpe kafe-etxean *Tomates verdes fritos* pintxo, besteak beste, probatzeko aukera ere egon da. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

# fruten posterra

Zelan eskuratu?  
Zatoz UKren bulegora\*, eskatu eta eroan!

\* bulego ordutegia: 10:00-14:00  
Amezti 6, 4. solairua / 5. bulegoa



## Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Fruten izenak  
(euskaraz, gazteleraz,  
frantsesez eta izen  
latinez) eta eurak  
jateko sasoiak.

[lehen]



INDALECO OLAGUEREN

[orain]



ASIER MENTXAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / GOIERRI ELIZA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; surfean



Plentziako hondartza, 2009ko maiatza

Testua: **Arrate Illaro** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Iparragirre abila dela

Eguzki jauna agertu eta azkar mugitzen gara gu, baina Kantauri itsasoaren ertzak hotza ere badu: otsaila, abendua, luzea da negua; hondartza hutsik daukagu (e)ta udan berriz guztiak goaz, lau hankatakoak salbu.

Batzuek taula murgiltzen dute olatuetan barrena, besteek, berriz, toailarekin hartzen dute atsedena; nahiz maite itsasertzea ona da ulertzea txakur iletsuen sena: ondo dakite itzala dela eguzkiaren onena.

(e)Ta esaten da: "Ongi etorri surflarion aberrira Uribe Kosta Australiaren parte bihurtzen ari da", baina taula hartuta eta begiratuta olatu ho(r)ien neurrira; barkatu, baina txakurrak ere surfean ibiltzen dira.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidali lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)



## LAN ESKAINTZA

Publizitate salmenta eta sustapen lanetarako arduraduna

- \* eskualdea ezagutzea kontuan hartuko da
- \* irailan beharrean hasteko

\* Bidali curriculum-ak [publiuk@aldizkaria.biz](mailto:publiuk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora

## musika &gt; Mikel Laboaren lana eta bizitza batzen duen DVDa



Joan den urteko abenduan zendu zen Mikel Laboa kantaria

**Beste gauza** askoren artean, amaitu bako proiektua utzi zuen Mikel Laboak. Iazko urrian ekin zion lana prestatzeari, baina abenduaren 1ean hil egin zen. Emazteak egitasmoari heldu zion berritarrilean eta ekainean kaleratu zuten. Zaila da bere herriari horrenbeste eman dion artistaren ekarpena lan bakar batera batzea; baina, helburu hori ahalik eta ondoen betetzen saiatu dira. DVDak ordu bat eta berrogei minutuko iraupena du, eta zati bitan banatuta dago. Lehenean, Laboak berak ematen du bere bizitzaren eta lanaren barri. Bigarrean, bere ingurukoek berba egiten dute Laboari buruz. Horretaz gain, Laboaren bizitzako irudiak, kontzertuak eta kantuak jasotzen ditu. DVDagaz batera CDa ere badago, Gipuzkoako Foru Aldundiak urrezko domina eman zion ekitaldian eskainitako kontzertuagaz. Hori guztia osatzeko, 24 orrialdeko liburua. ○

## gorliz &gt; udaltzainak bizikletaz maldan gora!



Udaltzainak bizikletaz hondartzako pasealekuan


**Garapen** jasagarriaz behin eta berriz berba egiten dugun garai honetan, Gorkizko udaltzainek ingurugiroa zaintzeko pauso barria eman dute. Izan ere, ekainean, bizikletaz mugitzen hasi ziren. Hondartzako lanak direla eta, zailtasunak dituzte inguru horretan kotxez mugitzeko eta horregatik aukeratu dute bizikleta. Uda partean, Gorkizko biztanleria laukoiztu egiten da, eta honegaz batera, lapurreta kopuruak gora egiten du. Ekimena udan abian ipini badute ere, urte osoan mantentzeko asmoa dute, bizikleta udaltzainen beste garraiobide bat gehiago bihurtuz. Enma Calzada alkatearen ustez, "bizikleta garraiobide bizkorra eta diskretua da, eta oinez edo kotxez heltzeko zailtasunak ematen dituzten txokoetara heltzeko aukera ematen du". Ikusiko dugu zelan moldatzen diren maldan gora! ○

## saiaszgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



..harria



...lehen garaiak...



...itsasa

[www.saiaszgetaria.com](http://www.saiaszgetaria.com) / [info@saiaszgetaria.com](mailto:info@saiaszgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

**surfa** > “6 ohol” surf erakusketa sortu du Kepa Acero getxoztarrak



**Eskualdeko** hondartzetan maila handiko surflariak hezi dira. Horietako bat da Kepa Acero getxoztarra. Olatu gaineko bizitza izan da berea. Izandako bizipen guztiak lagunakaz elkarbanatzeko, “6 ohol” erakusketa sortu barri du. “70eko hamarkadatik gaur egunera, denboran zehar egindako bidaia olatu aparren gainean”; horrela laburbildu du surflariak erakusketan ikusi ahal izango dena. Rokeren argazkien eta Enrique Arteroren oholen bidez, “iraganak etorkizunean duen garrantzia ulertzen” saiatu da. Garai ezberdinetan erabilitako sei ohol aukeratu ditu bere ibilbidea deskribatzeko. Acerok berak egindako azalpenetan, oholek iradokitzen dioten sentazioei buruz berba egingo du. Bilboko Belaza Aretoan (Arrikibar plaza 5) bisitatu ahal izango da erakusketa abuztuaren 14 arte. Surf zaleentzat, zein uretako kirol erregearen inguruan gehiago jakin gura duenarentzako aukera ederra! ○

Bilboko Belaza aretoan egongo da erakusketa abuztuaren 14a arte

Info gehiago: [www.myspace.com/belazagallery](http://www.myspace.com/belazagallery)

**uribe kosta** > bulegoa 21en izena eta logoa aukeratzeko lehiaketa



**Uribe Kostako** Zerbitzu Mankomunitateak Bulegoa 21en izena eta logotipoa aukeratzeko lehiaketa jarri du martxan. Aukeratutako lanak, Bulegoa 21egaz zerikusia duten ekimen guztietan erabiliko dira. 18 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte. Aurkeztutako proposamenak jatorrizkoak eta argitarabakoak izan behar dira; lanak baloratzeko orduan, iraunkortasunagaz eta Mankomunitateagaz zerikusia izatea, eta lau hitz edo gutxiago izatea begiratu da. Lanak uztailearen 17a baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitateko bulegoan (Gatzarriñe 4, Sopela). Sari bi emango dituzte; lehenengoa lagun birentzako SPA zirkuitua eta gau bateko egonaldia Deban eta, bigarrena, lagun birentzako afaria Sopolako Gardoki jatetxean. ○

Uztailearen 17a arte aurkez daitezke lanak Mankomunitateko bulegoan

[erretratua]



“Kaletik elkar agurtzen jarraitzen dugu, eta hori zaila izaten da gurea bezalako herri handi batean”

**Jon Elorriaga** > Algortako Kasinoko presidentea

**Telletekoa, algortar petoa**, betikoa. Elorriaga familiako kidea dugu Jon: “Unai Elorriagaren lehengusua, baina ni erdaldunen belaunaldikoa naiz; arreba txikia euskalduna da, eta hortik behera gainontzeko guztiak”. Ezaugarri aproposak Algortako erakunde mitikoenetako baten presidente izateko. 2008an hartu zuen Algortako Kasinoko kargua: “Jende nagusia zegoen batzordean. Taldetxo bat batu eta sartzea erabaki genuen; presidente izatearena badakizu, baten batek hartu behar zuen ardura eta niri egokitu zitzaidan”. Betiko izaerari uko egin barik, aire freskoa eman gura dio Kasinoari: “Herriko koadrilak sartu gara guztiontzako ekimenak antolatzeke asmoz. Orain dela 30-40 urte mugimendu handia zegoen: dantzaldiak, udako jaiak... Hori berreskuratzen saiatuko gara, urtean 5-6 ekitaldi antolatuz. Herriaren bihotzean dago eta lokal handia da, ezin da alferrik galdu”. Hala ere, ez dituzte betiko bezeroak baztertuko: “Ondo antolatuz gero, denentzako lekua dago”. Eta antolatzeko gaitasunik ez zaio falta Jon Elorriagari. Gaztetan, herriko jaiak prestatzen ibiltzen zen “Antzarrak” koadrilakoakaz: “Orain jaiak ez, baina Portu Zaharreko beteroen eguna antolatu dugu azken 7 urteotan; Paelletan, trago artean, sortu zen ideia”. Gauzak aldatu diren arren, herri izaera bizirik ikusten du Algortan: “Kaletik elkar agurtzen jarraitzen dugu, eta hori zaila izaten da gurea bezalako herri handi batean”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**cianoplan** **Reprografía**

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •  
Kartelak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadermaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •  
ermarkaketak •



# Neguri, Areeta eta Algorta

dagoeneko dena prest daukate, **kale** bazter txikiena ere **jai giroan murgiltzeko. Getxoko** jai denboraldia **uztailaren 10ean hasiko da** Negurin



Algortako jaietako koadrila jaitsiera

**Uztaila hil handia izaten da getxoztar jaizaleentzat, Areeta, Neguri eta Algorta auzoak giro ezin hobez zipriztinduko dira prestatutako egitarauagaz.**

**Negurin,** esaterako, hilaren 10etik 12ra, magia saioa edo paella lehiaketa izango dira, besteak beste. Areetan, 24tik 26ra, funky jaia edo herri-kirol erakusketa nabarmen ditzakegu, besteak beste.

Algortak bere aldetik, egitarau potoloa dakar, horrela, urteroko, koadrila jaitsiera, sardina jana, edo bertso saioak gozatze-ko aukera ez da faltako. Jaiek hilaren 29tik abuztuaren 1era iraungo dute. Lehenengo egunean, Moby Dick bakarlariek kantuz girotuko du Kasinoa. Hurrengo egunean, saharar herriagaz elkartasun ekitaldia

ospatuko da. San Inazioetako Jaitsiera tradizionalagaz ere ondo pasatzeko aukera parebakoa izango da eta gauean, Esne Beltzakoak oholtza gainera igoko dira San Nikolasen.

Iñaki Deuna egunean, Txirindularitza zirkuitu profesionala izango da goiztiarrena, Dantzari taldeen kalejiragaz batera.

**«Algortako San Inazioetan, Piperrak edo Esne Beltza musika taldekoak igoko dira oholtza gainera»**

Gauean, Piperrak taldearen zuzenekoagaz gozatze-ko aukera egongo da.

Azkenengo egunean, txipiroi lehiaketa edo Erdizka Lauetaragaz dantzatzeko aukera egongo da. ○

## Ekitaldi batzuk

### • Neguriko Jaiak

- Uztailak 10, barikua:  
-18:30 txupinazoa eta kalejira buruhandiakaz.  
-19:00 Haurrentzako Izugarizko Jaialdia.  
Uztailak 11, zapatua:  
-12:00 tortila lehiaketa.  
- 22:30 haurrentzako berbena.  
Uztailak 12, domeka:  
-12:00 paella lehiaketa.  
- 22:00 Zinemaldia.

### • Areetako Santa Ana jaiak

- Uztailak 24, barikua:  
- 19:00 txupinazoa eta kalejira buruhandiakaz.  
- 20:00 sardina jana.  
- 22:30 diskoteka.  
Uztailak 25, zapatua:  
- 17:00 umeentzako puzgarriak.  
- 20:00 saiheski jana.  
- 22:30 Funky jaia.  
Uztailak 26, domeka:  
- 12:30 euskal dantzak.  
- 18:00 herri-kirol erakustaldia.

### • Algortako San Inazioak

- Uztailak 29, eguaztena:  
- 19:00 koadrila jaitsiera.  
- 20:00 sardina jana.  
- 23:00 Moby Dick-en kontzertua.  
Uztailak 30, eguena:  
- 19:00 jaitsiera tradizionala.  
- 23:00 Esne Beltzaren zuzenekoak.  
Uztailak 31, barikua:  
- 12:00 euskal dantza ageraldia.  
- 14:00 bertso-bazkaria.  
- 23:00 Piperrak taldearen zuzenekoak.  
Abuztuak 1, zapatua:  
- 08:30 txipiroi lehiaketa.  
- 17:30 herri-kirolak.  
- 18:00 buruhandiak herrian zehar.  
- 21:00 Erdizka Lauetara.

## Ludotekak aldaketak

egingo ditu uztailan eta abuztuan



Umeentzako Ludotekak ordutegia aldatuko du udan

**Getxoko Udaleko** Gazteria sailak antolatutako Ludotekak funtzionamenduan aldaketa batzuk jasango ditu udan, lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko asmoz. Koldo Iturbe Arloetako zinegotziak prentsaurrekoan aipatutakoaren arabera, ekimen honen bidez umeak aisialdian modu dibertigarrian hezi eta euren protagonismoa bultzatu gura dute, baita umeen artean aisialdian euskararen erabilera sustatu ere.

Ludoteka irailaren 4ra arte egongo da zabalik goizeko 10:30etik 13:30era, ezarritako txanden arabera erabili ahal izango dute; hau da, 5 eta 7 urte bitarteko umeak astelehen, eguazten eta barikuetan joan ahal izango dira; 8 eta 11 urte bitartekoak martitzen eta eguenean. Txikiak Ludotekan dauden bitartean, gurasoek ez

dute bertan edo inguruan egon behar izango.

Ludotekarako gainera, ez da kuotarik ordaindu behar. Umeen datu batzuk baino ez dira eman behar, eta egun bakoitzean ezarritako kupoa betetzen denean, ezingo da haur gehiago sartu.

Bestalde, datorren ikasturtean Ludotekak 65 plaza eskainiko ditu eta zozketa bidez esleituko dira. Plaza lortzen duten umei txartela emango diete. Ludoteka 2009ko irailaren 7tik datorren urteko ekainaren 22ra arte erabili ahal izango dute. Ordutegia 17:00-20:00 izango da eta egunak adinaren arabera atonduko dituzte. Plazak erabakitze-ko zozketa uztailaren 13an egingo da, eta emaitzak 16an argitaratuko dituzte [www.getxo.net-en](http://www.getxo.net-en). ○

## VILLAMONTE ETA AIBOAKO IGOGAILUAK IPINTZEKO LANAK ABIAN

Hasi dira dagoeneko, Algortako Villamonte eta Aiboa auzoetan igogailuak ipintzeko lanak, mugikortasun urria duen jendeari errazago iristea ahalbidetuz. Villamonten jarriko dituzten igogailuak biei dagokienez, esparru ingurutik Geltokiko plazara eta metrora iristea erraztuko dute. Lanek bost hilabete iraungo dute. Aiboakoa bestalde, Txakursolo Metroko geltokiagaz lotuko duen igogailuak ipintzeko lanak hasiko dira. Ereagako igogailuaren antzeko kabina panoramikoak izango du. Horrez gain, Txakursolon, pertsona ezgaituentzako aparkalekua egingo dute. Lan hauek zazpi hilabeteko iraupena izango dute.

## UDAL TURISMO BULEGOAK ZABALIK IRAILAREN 15ERA ARTE

Getxoko Udal Turismo Bulegoak herritarrei arreta eskaintzeko ordutegia luzatuko du udan, datorren irailaren 15era arte. Horrela, Ereaga hondartzan kokatuta dagoen Turismo Informaziorako gunea egunero 10:00etatik 20:00etara, etenik bako ordutegian egongo da zabalik. Bizkaia Zubiaren ondoan dagoen Turismo Informaziorako gunea oster, asteko egun guztietan zabalduko ditu ateak 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

## GOBELAKO UHOLDE ARRISKUA EKIDITEKO PROIETUAK ONARTUTA

Uholdeetako Batzorde Informatibo Bereziak oniritzia eman die, Urak Gobela errekararen egoera Salsidu eta Etxezuri-Larrañazubi aldeetan hobetu eta ingurumena lehengoratzeko Proiektuaren harira, aurkeztutako lan egitasmo biei. Uraren Euskal Agentziak Gobelaren egokitzapen Hidraulikorako eta Ingurumena Lehengoratzeko egindako Proiektuan aurreratutako jarduerak dira, eta 6.000.000 eurotik gorako aurrekontua dute.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Illeta kalea 1 • ALGORTA



**Iban Arreguy** > Urepeletik Algortako berbalagunera

“Batzuetan goxoago da herri ttipi batean egoitea, ez eta hiri haundi batean”



Iban Arreguy Urepeleko gaztea

**Urepeleko gaztea dakarkizugu oraingoan. Iban Arreguyk bere esperientzia, bai Bilbon bezalako hiri handi batean, eta bai Algortako berbalagun moduan, kontatu digu. Behe-nafarra Deustuko unibertsitatean ibili da azken urte honetan ikasketak burutzen eta orain bere herrira bueltatzeko unea heldu zaio. Hala ere, badaki barriro Algortako lagunak ikusteko gogoagaz itzuliko dela.**

—Nola hartu zenuen etortzeko erabakia?  
—Etorri nintzen aurten Bilborat ene ikasketentzat. Egia erraiteko betidanik etortzen naiz Hegoalderat, familia dut, Nafarroan. Eskolarekin ere Zumarragarat jin izan naiz aintz. Ene iduriko, bizimodua ezberdina da Iparraldetik, eta hori beti gustatu zait. Orduan, aukera ukan nuelarik Bilborat etortzeko ikasketentzat, ez nuen dudarik ukan. Gainera, ez nuen batere ezagutzen Bizkaia.

—Nola sartu zinen berbalagunera?

—Egia erran, Egizu ezagutu nuen lagun bati esker, bera Bizkaiko berbalagun taldean zen. Orduan, hasi nintzen elkartzen aste

oro Algortan berbalagun taldearekin eta emeki-emeki hasi naiz bizkaieraren ikasten. —**Iparraldea eta Hegoaldea, distantziak gain, alde kulturean ere maila handia dago?** —Kultur arloan ere badago maila ezberdintasuna. Lehendabizi, uste dut bietan badagoela dinamika kultur maila, eta elkarrekin dute dinamika hori bultzatzen. Gero, ikusten da Hegoaldean elkarrekin kopuru haundiagoa dela. Bertzalde, oharitzen da Hegoaldean elkarrekin aktibitate gehiago eta aukera gehiago proposatzen diotela jendea-ri, aldiz Iparraldean kultur arloan ez da hain zabala. Bainan, azpimarratu behar da

Iparraldean ikusten dela indar eta gogoia kultur mailan, adibidez besta elkarte, antzerki elkarte, herriko aldizkari eta irrati...

—Nekazal herri txiki batean bizita, orain, Bilbon bizitzea, aldaketa handia da?

—Aldaketa izugarria da, gaua eta eguna bezala. Urepele herri ttipia eta laborantzatik bizi da, orduan ez du ezer ikustekorik Bilbo bezalako hiri batekin. Enetako ez da holako aldaketa izan, jakinez bi urte egon naizela Bordelen ikasten, jadanik ezagutzen nuen hiriko bizimoldea. Gero, aitortu behar dut batzuetan goxoago dela herri ttipi batean egoitea, ez eta hiri haundia batean.

**«Emeki-emeki hasi naiz bizkaieraren ikasten, baina egia erran zail egiten zait»**

—Urepele, herri txikia, baina oso ezaguna; zer dauka hainbesteko fama izateko?

—Ez dakit zendako holako fama daukan, egia da herri oso lasaia dela eta mendi ederez inguratuta dagoela, berdin horrek egiten du. Ene ustez, Xalbador bertulariari esker da herria ezaguna. Jende aintz etortzen da herrirat jakinez Xalbadorren herria dela.

—Zer kontu daiteke Xalbadorri buruz? Herrian bere omenezko harria ere badago.

—Xalbador Urepelen sortu eta bere bizi guzia laborari izan da. Gero, denek dakigun bezala bertularia zen eta horri esker bilakatu zen ezagun. Herriarentzat Xalbador gizon garrantzitsua zen, jakinez Urepele ezagun bilakatu dela berari esker eta bertsu aintz egin ditu herriari buruz. Bertzalde, gizon oso ixila zen eta maite omen zuen bere etxolarat joaitea bakarrik egoiteko, bere bertsu lantzeko. Azkenean, zinezko poeta zen eta ikusten da bere bertsu batzuetan (Odolaren mintzoa) nola irakurtzen zuen eguneroko bizi eta bere ikuspuntu zuzena geroari buruz. ○

## Getxoko XXV. Nazioarteko

### Folklore eta Dantza Jaialdia datorren

uztailaren 21etik 23ra, Algortako Biotz Alai plazan



Getxoko Nazioarteko Folklore eta Dantza Jaialdia

**Getxoko 25.** Nazioarteko Dantza eta Folklore Jaialdia datorren uztailaren 21etik 23ra bitartean ospatuko da, eta hiru kontinentetako taldeak batuko dira bertara. Hiru emanaldiak Biotz Alai plazan izango dira, 22:00etan eta sarrera dohainik izango da. Koreako Bong Sang Mask taldea, Venezuelako Cruz Alejandro Quinal taldea eta Getxoko Itxartu taldea izango dira aurtengo parte-hartzaileak.

Jaialdiaren estreinako ekitaldia Cosandama taldeak eskainiko du. Perutik etorritako dantzari gazte hauek esperientzia artistiko handia daukate eta musika

eta dantza herrien kultur biziaren adierazpen bezala ulertzen dute. Cosandama teknika, xarma eta sentimenduen nahasketak da. Hurrengo egunean, Txinako Guizhouko Hego-Eskualdeko folklore kantu eta dantza konpainia igoko da oholta gainera. Guztira 130 artistak osatuta dagoen taldeak, ibilbide luzea egin du folklore munduan; Miao eta Dong etnietako dantza eta kantu tradizionalak aurkeztuko ditu gurean. Jaialdia amaitzeko, bertatik bertara, Itxartu getxoitarrek erakustaldia eskainiko dute, garaian garaiko janzkera eta musika tresnak errespetatuz. ○

### EUGENIO GANDIAGARI OMENALDIA UZTAILAREN 18AN, 20:00ETAN

Eugenio Gandiagak urte andana Getxoko Kultur Etxeko zuzendari ibili ostean, duela hilabete batzuk, erretiroa hartu du. Hori dela eta, Txema Batarrita (Biotz Alai abesbatzakoa), Jon Elorriaga (Algortako Kasinokoa), Batu Basterretxea (Galea kirol taldekoa) eta Igor Alabak (Etorkizunakoa) batzordea sortu dute Gandiagari omenaldia egiteko asmoagaz. Ospakizuna Uztailaren 18an izango da, arrastiko 20:00etan Algortako Biotz Alai plazan.

### DATORREN UZTAILAREN 17AN BENITO LERTXUNDI BIOTZ ALAIN IZANGO DA

Oriotarra Biotz Alai plazako oholta gainera igoko da uztailaren 17an, barikua, gaueko 21:30ean. Benito Lertxundi, joan den 2008ko urrian aurkeztu zuen, *Itsas ulu zolia* diskoa aurkeztera dator. Lan barria hamar kantuk osatuta dago eta klasiko bihurtzeko osagai guztiak ditutela esan daiteke. Benitoren testuak batera, Olatz Zugasti, Jon Maia, Andoni Egaña eta Iñaki Azkuneraren konposizioak daude. Diskoaren gaiak dagokienez, itsasoa, bakea, hitzaren balioa... dira nagusi.

### PAIATARRAK, EGAÑA, LUJANBIO, MAIA ETA ARZALLUS BIOTZ ALAIN

Urtero legez, Bertso Jaialdi Mundiala Algortara helduko da datorren uztailaren 15ean, Biotz Alai Plazako karpapera, hain zuzen ere. Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik, Andoni Egaña, Xabi eta Fredi Paia, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus oholta gainera igo eta ondo pasatzeko dosi ederrak botako dituzte. Ikuskizun dibertigarria, originala eta umorez zipritindutakoa; ezustekoz bete izango da honako hau. Oraingo honetan, Peio Unzurrunzagak jardungo du gai-jartzaile. Saioa 22:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

### LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA



**Zuriñe Urreztarazu** > Auzolan programako arduraduna

“Enplegugarritasuna hobetu eta lana topatzeko arazo gehien duten kolektiboek lagundu gura diegu”

**Leioako zortzi emakumek parte hartu dute Auzolan programa arrakastatsuan. Ekimen honen helburua lana topatzeko arazo gehien izan dezakeen jendeari laguntzea da. Aipatzekoa da, joan den urtean hasitako programan parte hartu duten guztiak dagoeneko lana dutela.**



Zuriñe Urreztarazu

—Zelan bururatu zitzaizuen Auzolan ekimena Leioan martxan jartzea?

—Krisiaren arazoa eta langabezi indizeak gero eta altuagoak direla ikusita, eskari barriak urtenbidea emateko ekintzak programatzea bururatu zitzaigun. Euskal Autonomia Erkidegoko langabeziak ari garenean, gizartean baztertuta dauden kolektiboek zuzenduta egon behar diren lan politikak martxan jartzea beharrezkoa iruditu zitzaigun. Kolektibo hauek krisi garaian ere ahulagoak direlako. Baldintza hauek kontuan hartuta, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak oso nabariak dira oraindino ere; beraz, emakumeen tasa aktiboa gizonena baino askoz baxuagoa da. Gizarte erabilerako lan eskaintza zehazterako orduan, eremu bi desberdin aukeratu ditugu: alde batetik, hiru eta laugarren adina eta bestetik, hiri- zainzailena.

—Zein izan da helburu nagusia?

—Leioak enplegugarritasuna hobetzea, lan-

postua lortzeko arazo gehien dituzten kolektiboek lagunduz. Programa berari dagokionez, geriatiko eta adineko pertsonak zaintzeko lanetarako hezitzea bilatzen da.

—Zer daukazue prestatuta etorkizunerako?

—Inguruko enpresen baldintzei eta Auzolaneko erabiltzaileen errealitatea kontuan hartuta ekintza barriak eratzea.

—Zein motatako lanak edo zein baldintzakoak dira Auzolaneko parte hartu ostean aurkitzen direnak?

—Hasierako kontratuak aldi baterakoak izaten dira. Baina kasu guztietan kontratuak finantzatzeko aukera dago, eta mugabako ere izan daitezke.

—Zer esango zenuke jendea honelako ekimenetan izena ematen animatzeko?

—Prestatzeko eta lanbide etorkizuna birbidertzeko aukera garrantzitsua eskaintzen duela; beraz, lanean jarraitzeko aukera badagoela. Ekimen hau ez da iraupen mugatua duen programa soilak. ○

## Leioa jasangarriagoa

Kaleak danontzat seguruak eta irisgarritasun bermatukoak gerta dakizkigun



Leioa jasangarriagoa egiteko LED teknologia duten semaforoak ipini ditu Udalak

**Leioa** jasangarriagoa izan dadin, herriko kaleetan hainbat aldaketa egin dituzte. Danontzat seguruak eta irisgarritasun bermatukoak gerta dakizkigun, eta itsu edo elbarrituak diren pertsonen ere egoitzeko.

Ekimena aurrera eramateko, alde batetik, udalerriko semaforo guztiak aldatu dituzte, LED teknologia egokituz, eta kontsumoaren %80 aurreztuz. Semaforoen sistema honek badu beste barrikuntzarik, itsuek semaforoa berde dutenean eta gurutzatzea segurua denean, abisua ematen dien alarma jartzea izan da. ONCE elkarteak honetarako, ikusmen urritasuna duen pertsona bakoitzari mandoa emango dio, horrela itsuek

semaforo aurrean daudenean mandoari eragitean, alarma aktibatuko da eta berde dagoela jakinaraziko die dispositiboak. Modu honetan, itsuek bakarrik behar dutenean aktibatuko da alarma, auzotarren inongo eragozpenik eragin barik.

Mugikortasun gutxitua dutenentzat, ordea, espaloiak jaitsi, zebra bideak altxatu eta baldosa aldaketak egin dira.

Gorrek, barriz, udal kudeaketak inongo arazo barik egin ahal izateko, Udalak ikastaro berezia antolatu du, Udal langileek keinu mintzaira ikas dezaten.

Amaitzeko, lehen aldiz Leioan, Udalak hiru jolasleku ezberdinetan ezgaitu fisikoentzat zabur bereziak jarri ditu. ○

## JENDEA BEHAR DA BERTINEAN EUSKARAZ-EN LAN EGITEKO

Leioako Euskara Zerbitzua Bertinean Euskaraz programarako euskalduna den jende bila dabil: aurkezle, ume-jagole, kirol begirale, aisialdi begirale edo irakasle postuak betetzeko. Ekimenaren helburua aurreko lan horiek egiteko gai diren pertsonen zerrendak eskaintzea da: herriko elkarte zein partikularrei, da. Aurten, begirale zerrendan daudenak, Euskaraz Zerbitzua antolatzen duen Olgetan jardueran lan egiteko zerrendetan sartuko dira EGA edo baliokidea eta begirale edo magisteritza titulua badaukate. Interesatuta dagoenak curriculum-a bidali beharko du.

## “ARRAKASTATSUTZAT” JO DUTE GOROTZAK BATZECO KANPAINA

Hilabete hauetan Leioan txakurren jabeek beren animalien gorotzak batzeko kontzientziazte kanpaina “arrakastatsutzat” jo du Udalak. Guztira 26 txartel hori banatu dira informazio gisa eta gorri bakarria isunagaz, animalien kakak ez batzeagatik.

## LUR BARRIAK SARIETAN PARTE HARTZEKO UZTAILAREN 15A ARTE

Leioa eta Uribe Kostako Behargintzek, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundia, Eudel eta BBK Gaztelanbide Fundazioagaz batera kultura ekintzaileak sustatzeko Lur Barriak sariaren zuzendaritza deialdia martxan jarri du. Bertan parte hartu gura duten guztien enpresa barriak altan emanda egon beharko dute Ekonomia Jardueren gaineko Zergan 2008ko ekainaren 15etik 2009ko irailaren 14ra. Bestetik ekintzaileetako batek gutxienez, Leioan errodutatu edo enpresa bertan egon beharko da. Dokumentazioa zein eskabidea Behargintza zentroetan aurkeztu beharko dira uztailaren 15a baino lehen.

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



**ERA GUZTIETAKO  
ERROTULUAK eta  
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

## [erandio]

**Joseba Goikouria** > Erandioko alkatea

“Niretzat ohorea da herriko alkate izatea, eta gertutasuna lehentasunetako bat izango da”

**Joan den ekainean Erandioko alkate Mikel Arieta-Araunabeñak kargua utzi zuen Bilboko Merkataritza Ganberako zuzendari izateko. Bere lekua Joseba Goikouriak hartu du. Erandioztarrantzat ohorea da herriko alkate izatea.**



Joseba Goikouria da Erandioko alkate barria

—Zer da alkate kargua hartzea?

—Ohorea da nire herriko alkate izatea eta horregatik, herritar guztiak asebetetzeko lana egingo dut. Gertutasuna nire lehentasunetako bat izango da, uste baitut Erandioaren bertutea dela.

—Noiz eta zerk bultzatuta sartu zinen udal-korporazioan lanean?

—1995ean. Nire zuzendaritza-batzordetik EAJko zerrendetan sartzeko proposatu ninduten. Beraz, 1997an gobernu-taldeko korporatibo gisa sartu nintzen, noizbait alkate izango nintzela inolaz ere pentsatu barik. Denborak arlo desberdinetan erantzule egitera eroan nau; beraz, kargua hartzerako ordua egoera naturala eta lasaia izan da.

—Zelan ikusten duzu orain arte egindako beharra?

—Mikelen lana ez dut hobezintzat kalifikatuko, baina bai lortzeko zaila; hala ere, saiatuko naiz. Harremanari dagokionez, ona da eta horrela jarraituko du izaten. Pertsonalki

lagun ona dudala esan dezaket.

—Alkate izanda zer aldatuko zenuke?

—Alkate bezala, joan den 2007ko hautesprograman hartutako konpromisoak errepertatu behar ditut eta dagoenera moldatu behar naiz. Hala ere, ez dut “aldaketa” hitza gustuko eta nire ustez eguneroko lanak bereizketa hori islatzea ahalbidetuko du.

—Egindako lanagaz jarraituko duzu?

—Bai, proiektu hauek gure udal-gobernuan eta Udaleko EAJko taldean adostu ditugu eta.

—Zelan ikusten duzu egin beharreko lana?

—Egun, badaude hasita dauden lanak, Ollaga kalea edo Santa Maria elizaren inguruko kasu, baina ahaztu ezin diren beste proiektu txikiago batzuk ere badaude.

—Buruhaustea emango dizun gairen bat?

—Bai. Alde batetik dagoen egoera ekonomikoa gero eta larriagoa izanda, Udalean ere nabaritu da; bestetik Altagako kaltetuei behin betiko urten-bidea ematea. ○

## Oinezkoentzako eremu barria

Urte bi baino gehiago lanetan egon ostean, Txurruka ibilgune barria prest dago



Gizona Jon Alberdiren Estelaren Barrutik eskultura aurrean duela

**Erandiok oinezkoentzako** gune barria izango du oraindik aurrera. Ibaizabal itsasadarren aurrean eta Altaga auzoaren parean kokatzen den Txurruka ibilgunea, hain zuzen ere. Lanak fase bitan egin dituzte, eta hilabete biko atzerapena izan dute, olio zikindutako lur zati batez arazoak izan dituztelako.

Obrek urte bi baino gehiago iraun duten arren, lan sinplea izan da, baina aldi berean konplikatu suertatu zaie; kutsatuta zegoen lurzoruan lanean ibili direlako, azaldu zuen Mikel Arieta-Araunabeña alkate zenak, bere azkenetariko ekitaldi publiko batean. 300 metroko luzera duen ibiltokia ontzira leku eta Astilleros Reunidos del Nervion enpresaren ingurutik igarotzen da. Jose Luis Goyoaga

kalean, altuera desberdineko eskailera eraikitzea izan da ekintza nagusia. Bertan, sarrera aldapa eta atsedean hartzeko eremuak topa daitezke. Proiektuaren arduradunek argi, hiri-altzari eta erabilitako zoladuretan arreta berezia ipini dute ibai ondoagaz bat egitea bilatuz.

Aipatzekoa den beste elementuetako bat uraren beraren gainean dauden begiratokiak dira. Hauek itsasadarreko bistak hornitzeaz gain, arrantza egitea ahalbidetuko dute. Gainera, plataforma honetan Astilleroseko antzinako garabia instalatu dute apaingarri gisa, eta honegaz batera, Jon Alberdi artistaren *Estelaren Barrutik* altzairuzko eskultura Txurruka pasearen hegaletako batean kokatuta dago. ○

## MARTIARTU DORREAREN BERRESKURATZEA GERO ETA HURRAGO

Bizkaiko Batzar Nagusiek Martiartu dorrearen berreskuratzeagaz bat egin dute. Testua alderdi popularrak proposatu du. Bertan, dorrearen birgaikuntzan ekonomikoki laguntzeko eta Banderizos gudaren interpretazio historikoko museo batean eraldatzeko beharrezko mekanismoak artikulatzeko agindua ematen zaio Aldundiari. Carmen Carron PPko juntakideak adierazitakoaren arabera, proiektua behin eginda, Bilbo Handiko eskaintza kulturalaren parte bihurtuko litzateke.

## SUKALDARITZA ETA APAINKETA IKASTAROAK HASTEAREN DAUDE

Udan, aisiarako denbora gehiago dagoela kontuan hartuta, Udalak pare bat ikastaro jarri ditu abian. Alde batetik, sukaldaritza tailerra, honetan txokolatea, euskal postreak, mexikoko sukaldaritza edo tarta bereziak egiten ikasiko dute parte hartzaileek, uztailaren 9tik aurrera. Bestetik, apainketa ikastaroak isplu edo lanparak apaintzeko aukera eskainiko du, uztailaren 8tik aurrera. Izen-ematea, ikastaro bakoitza burutu baino hiru egun lehenago egin behar da. Asko jota hamabi lagunek osatu behar dute taldea; 15 eta 35 urte bitarteko gazteak plaza guztiak betetzen ez badira, eskaintza gainontzekoei luzatuko zaie. Informazio gehiago: 94 602 58 91 edo gazteinfo@erandioko-udala.net.

## GOIHERRI TALDEAK AURTENGO BIGARREN TXAPELA JANTZI DU

Goiherri A sokatira taldeak bere bigarren txapela eskuratu du denboraldi honetan. Azkena, duela egun batzuk, Maeztun, Euskal Herriko 640 kiloko txapelketan lehenak geratu zirenean.

**Ujribefm**  
fm  
Gariz Ivatza  
107.8



### Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa  
**DEITU!**

Tf. 94 467 17 13  
FAX 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Sakelakoa  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

[www.arlan.biz](http://www.arlan.biz)

**GOZATU HONDARTZAN, EUSKARAZ, JOLASTUZ ETA IRAKURRIZ**

Sopelako hondartzak, bosgarren urtez, irakurtzeko Txokoen lekuko izango dira. 4 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek 300 metro koadroko gunea izango dute jolasteko eta ikasteko. Ekimen honek euskara eta haurren euskarazko irakurketa sustatu gura dituzte. Zerbitzua doakoa izango da, eta uztailera barik arrasti guztietan irekiko dituzte txokoak.

**SOPELUS ZERBITZUA IRAILAREN 30A ARTE EGONGO DA MARTXAN**

Dagoeneko martxan da Sopelako erdigunea herriko hondartzak lotzen dituen Sopelbus zerbitzua. Horrela, Irailaren 30a arte hiru bidaiak desberdin egingo ditu. Loiola Ander Deuna kaletik ateratzen dena. Sabino Arana kaleko autobus geltokitik ateratzen dena eta azkenik, Udaletxe aurretik irteten dena. Lehenengo eta hirugarren bidaiak Arrietara hondartzara helduko dira eta bigarrena, aldiz Atxabiribilera.

**LARRABASTERRAN KARMEN JAIK UZTAILAREN 16TIK 19RA**

Karmen egun handiagaz hasiko dira aurten Larrabasterrako jaiak uztailaren 16tik 19ra. Lau egun hauetan zehar adin guztietarako jarduerak antolatuta dituzte. Lehenengo egunean esaterako, Jakin eta Jolaseguz umeen animazioa, hegaluze eta sagardo dastatzea, eta Txapelpunk taldearen kontzertua izango dira, besteak beste. Hurrengo egunean aldiz, argentinar tango ikuskizuna edo erromeria Trikiziogaz nabarmen ditzakegu. Zapatuan, gaztegunea, batukada eta Gatiburen kontzertuak izango dira. Domekan, marmitako lehiaketak, paintball-a eta kale antzerkia Trapu Zaharra taldearen eskutik.

**Basoa** herriaren erdialdean

Udalak Lemotza ibaiko eribera oinezkoentzako gune berde bilakatuko du



Lemotza ibaia eta inguruak

**Loroño kaleko** oinbiderearen eraikuntza lanak direla eta, sopeloztarrek herriaren erdialdean baso-parke batez gozatu ahal izango dute. Erabakia aipatu lanetara bisita egin eta gero hartu zuten udal arduradunek. Horrela, sasitza-gunera 16.000 metro koadroko berdegune bilakatuko dute. Ekintza udazkenean hasiko da. Neurri honek URAk (Urenen Euskal Agentzia) eginiko Lemotza ibaiko birstortzeari laguntzen dio.

Udalaren esku-sartzeak hiriko erdigunetik gertuen dagoen ibai horren alde hartuko du, era naturalean garatu den

basoaren eremua, alegia. Udalaren helburua, sastraka kentzeagaz, sopeloztarrei zonalde horren zabaltzea da, eta horrela jendeak helezina zen leku horri probetxua ateratzea bilatzen da.

Etorkizuneko baso honek gune berdeen ugaritasunean oinarrituta dagoen hazkunde sopeloztarren izaera sendotuko du.

Bestetik, Udalak, hiri-altzari, eserleku eta argiak jarriko ditu ibilaldia atsegina gerta dakigun, eta ezaugarri labarnezinak izango dituen hormigoizko zimurtua aukeratu du. ○

**Unai Arketa** > El Peñon tabernako jabea

“Jendeak laguntzeko konpromiso handiagoa hartu beharko luke”



Unai Arketa

**Hamaika** urte daramatza Unai Arketak El Peñon tabernaren buru, eta lehen aldiz, orain arteko ospakizunak alde batera utzi eta garai barriari eman dio hasiera. Establezimendua inoiz baino lagunkideagoa bihurtu da El Peñon Elkarkoia, Kultura eta Kirolagaz; hiru ekimen, behar duen jendeari laguntzeko sortuak.

—Zertan dautza hiru ekimen hauek?

—El Peñon era desberdinean sustatu gura genuen, eta horretarako, elkarte desberdinei laguntzea erabaki genuen; Caritas edo hiesaren kontrakoei esaterako. Bestetik, kirola eta kulturaren mundua ere bultzatu gura genuen. Orain adibidez, desfilea egin dugu diseinatzaile ikasketak amaitu barri dituenak, bidea jarrai dezan. Izan ere, proiektu eta egitasmoak aurrera ateratzeko dirua ematea da asmoa.

—Lehenengo aldia da horrelako ekimena abian jartzen duzue?

—Bai. Aurreko urteetan famaturen bat ekarri izan dugu, baina oraindik aurrera

eredu honi jarraituko diogu.

—Aurten Itxarobide Elkarteari (Bilbo) eman diozue laguntza, nola aukeratu duzue nori lagundu?

—Bai. Itxarobideri 1.000 euro eta beste 900 euro arestian aipatutako bost diseinatzaileen artean onenari. Nori lagundu aukeratzeko orduan ez daukagu inolako lehen-tasunik. Itxarobide HIESAren aurkako lanean diharduen elkarte da, oraingo zerbitzu delako urten da, oso hurbil daukagu eta gazteak jabeatzeko modua ere bada.

**«El Peñon modu desberdinean sustatu gura izan dugu»**

—Jendea laguntzeko prest agertzen da?

—Beno, lehengoan jendearentzako zozketa egin genuen. Boleto bakoitzak bost euro balio zuen, baina jendea ez zen nik uste bezain elkarrekin izan; beraz, gura nuke ekimen hauetarako, jendeak konpromiso handiagoa hartzea, azken finean deno eragiten digute eta. ○

**LAIKAK Taberna**  
Bentatu 2  
48600 Sopela  
Tf. 94 676 03 28

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak  
gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!  
Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

**DIDAK HAMILTON**  
**IDIOMAS**

**Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

**4 bide**  
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**NAZIOARTEKO DANTZA  
ETA KANTU JAIALDIAK  
ZAZPI EGUN IRAUNGO DU**

Datorren uztailearen 13tik 19ra munduko bazter guztietatik etorritako dantza taldeak izango dira Berangon ospatuko den Nazioarteko III. Dantza eta Kantu Jaialdian. Simon Otxandategi Dantza taldeak antolatutako ekimen honen jarduera ofizialak hilaren 17, 18 eta 19an izango dira, 21:00etan, Lantzarten. Horrez gain, uztailearen 13an, astelehenean, taldeei harrera egingo zaie, eta familien banaketa. 16an, egunean, barriz, Euskal Herriko kostaldea ezagutzeko txangoa egingo dute eta hurrengo egunean, Guggenheim museora bisita izango da. Orotara 200 lagunetik gora izango dira. Zuberora, Donostia, Mexiko, Belgika, edo Poloniatik, besteak beste; Berangon kantu eta dantza ikuskizunak aurkeztuko dituzte.

**ENDIKA BASAGURENEN  
HORMA-IRUDIA BERANGO-  
MERANA ESKOLAN**

Endika Basaguren artistak Berango-Merana eskola sarreran euskal mitologiari buruzko horma-irudia margotu du. Lan honetan, Basajaun umei ongi etorria egiten ikus dezakegu; galtzagorriak eta lamiak, ikasleak izango balira bezala azaltzen dira. Zuri beltzean egingo da, pertsonaia guztiak zuriz agertzen dira hondo beltzean. Basagurenek gainera, eskolara doan edozein ume obran agertzen diren pertsonaiakez identifikatuta ikustea bilatu gura izan du.

*Turikal dai*

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

**Santa Ana jaiak**

Datorren uztailearen 24tik 26ra jai giroa izango da nagusi Berangoko auzo honetako bazter guztietan



Habeas Corpus taldeak uztailearen 24an eskainiko du zuzeneko

**Uztailean ohikoa** den bezala, Santa Ana jaiak emango diote hasiera Berangoko jai garaia. Jai Batzordeak eta Udalak dagoeneko dana prest daukate adin guztietako jendeak ondo pasatzeko aukera bikaina izan dezan, hilaren 24tik 26ra. Hiru egunetan zehar, kontzertuak, umeentzako jarduerak, janari dastaketak izango dira nagusi.

Lehenengo egunean, Sambhu antzerki taldearen eskutik pailazo ikuskizunak girotuko du arrastia, 18:30ean, zaldi proba edo Los Txikis taldearen bilbainadakaz batera. Gaueko kontzertuak gurago dituztenek barriz, Habeas Corpus edo Trikizio taldeak

oholtza gainera igoko dira, 23:00etan. Zapatuan barriz, Umeentzako herri kirol tailerra, 17:30ean, eta berbena *Erise una vez el espacio* obragaz, Poco Pico taldearen eskutik, 19:30ean izango dira. Gauean, herriko musika taldea eta Kataluniako Kop bandak jarriko dute giroa, 23:00etan. Domekan, goizetik umeentzako parkea edo aitite eta amamentzako dantzak izango dira Simon Otxandategi taldearen eskutik. Arrastian, 19:00etan, zaldi probak izango dira eta jatea gustuko eta gurago duenarentzat, 20:00etan, sardina jana eta sagardoa dastatzeko aukera parebakoa egongo da. ○

**EMUK** > Elektronik Mapa Uribe Kosta

Herritarren iritzia hirigintzan txertatzeko mapa parte hartzailea



EMUK mapa elektronikoaren aurkezpena, Urdulizko Kultur Etxean

**2007an hasi ziren** Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Berdintasun eta Jasangarritasun departamenduetako lagunak herritarren iritzia ezagutzeko, eta hori hirigintza planetan txertatzeko tailerrak antolatzen. Hasieran, Mankomunitatea osatzen duten herriak batera aztertu zituzten; ondoren, Hiria Kolektiboaren laguntzagaz, herriz herriko egoeraren azterketa egin zuten. Emakumeak lan egin dute batik bat; izan ere, gehienetan ez da emakumeon ikuspuntua kontuan hartzen, hiriak eta herriak diseinatzerako orduan.

Hausnarketa horietatik guztietatik ateratako ondorioak, EMUK mapa elektronikoa osatu dute. Horren helburua, herritarren ikuspuntua hirigintza plangintzetan txertatzea da, bizi kalitatea hobetu ahal izateko. Uribe Kostako bizilagun orori zabalik dago; hau da, edozeinek egin dezake ekarpena. Arriskutsuak izan daitezkeen guneak, zein beste hainbat konturi

buruzko informazioa kontsultatzeaz gain, interesgarria pentsatzen dugun informazioa eta argazkiak gehitu ahal ditugu mapa interaktiboan. Erabiltzeko erraza da. Mankomunitateko web orrian ([www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org)) sartu eta bertan gura dugun herria aukeratu behar dugu. Ondoren, gehitzen dugun informazio edo puntuari izena eman eta mapan tokia adierazi behar

**«Mapa kontsultatzeaz gain, ekarpenak egin daitezke»**

dugu. Ekarpentak biribiltzeko, argazkiak gehitu eta azalpen luzeak eman daitezke. Amaitzeko, izen-abizenak eta helbide elektronikoa jarri behar dira, igorritako informazioa ondo heldu dela ziurtatzen digun e-posta jaso ahal izateko. Mankomunitatetik parte hartzera, zein mapa kontsultatzera animatu gura dituzte eskualdeko gizon-emakumeak. ○



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



Ajuria  
taberna

Andres Cortina 2

ALGORTA



**aldai**

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

**AIXERROTA BHI**

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86



## GOIETA ARTADIKO JOLAS GUNEA ZABALIK

Urdulizko Goieta artadi inguruan, adin guztientzako parkea egin du Udalak. 5.000 metro koadroko eremua da, eta herriko gune berde nagusia izateko helburuagaz atondoan dute. Umeentzako jolas gunea eta eserlekuak jartzeaz gain, ondoan dagoen skate pista barritu dute. Plaza biak, metalezko egitura batez estalitako pasabide bidez konektatuta daude.

## MADALENAK PLENTZIAN HILAREN 22AN

Plentziarrek Madalenak ospatuko dituzte uztailearen 22an. Goizeko 10:30ean hasiko dira ospakizunak txistulariakaz eta Sugarri fanfarreagaz. Ondoren meza nagusia eta ohorezko aureskua egingo dute. Arrastiko 18:00etan, esku pilota txapelketa jokatu dute. Kirolean galdutako energiak barrizkeko, txerri errea banatuko dute 20:00etatik aurrera. Dantzaldiek emango diote amaiera egunari, Bizar Gorri taldeagaz lehenengo eta Deabru Beltzak taldekoez musika eta su ikuskizunagaz ondoren.

## BARRIKAKO SAN BALENTIN DIKEA KONPONDUKO DUTE

Neguan izandako ekaitzak eta haizeak direla eta, Barrikako San Balentin dikea erabat kaltetu zen. Butroeko itsasadarrean mugitzen diren lagunentzako arrisku larria suposatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak dikea konpontzeko lanak aurreratzea erabaki du, eta 2,6 milioi euro inbertituko ditu.

## PLENTZIA

### II. Historia Jardunaldiak egingo dituzte 9tik 15era



Portuko merkataritza izango dute berbagai jardunaldietan

**Hilaren 9tik 15era**, Plentziako historiari buruzko II. Jardunaldiak egingo dituzte Goñi Portalen. Joan den urtean hasi ziren udalekoak jardunaldiak antolatzen, herriko ordenantzen V. urteurrena zela eta. Izandako arrakasta ikusita, ekimen honeguz jarraitzea erabaki dute. Eusko Ikaskuntzaren laguntzagaz egingo dituzte, 1500 eta 1812 urteen arteko portuko merkataritza izango dute berbagai.

Arrastiko 19:00etan hasiko dira jardunaldiak 9an. Aurkezpenean Isabel Zarauza

Plentziako alkatea eta Ramon Anasagasti Kultur Zinegotzia izango dira; horiekaz batera, Marta Ajuria eta Gonzalo Duo, Eusko Ikaskuntzako ordezkariak. Burdinaren salerosketa, ontzigintza, eta itsasoaren garrantziari buruz arituko dira Jean Philip Priotti, Lourdes Odriozola eta Maria Angeles Uriarte. Jardunaldiei amaiera emateko, mahai ingurua egingo dute eta horretan, datorren urterako proposamenak hartuko dituzte. Parte hartzeko, Goñi Portalera hurreratzea besterik ez dago. ○

# Uzt. 6 - uzt. 31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GORLIZ

► **Arte erakusketa: Ignacio Olabarrietaren arte-lanak.** Erakusgelan. Uztailearen 9tik 16ra. 19:00etatik 21:00etara.  
► **Gorlizko toponimiari buruzko erakusketa.** Udaletxean. Uztailearen 25etik 30era. 11:00etatik 13:00etara.

### PLENTZIA

► **Grandes exploradores.** Butroiko Placentia museoan. Urrira arte. Eguaztenetik domekara, 11:00etatik 14:00etara. Barikuan eta zapatuan 17:00etatik 20:00etara.

## MUSIKA

### GETXO

► **Pedro Guerraren zuzeneko.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztaileak 11, zapatua. 21:30ean. Sarrera: 15 euro.  
► **Benito Lertxundiren zuzeneko.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztaileak 17, barikua. 21:30ean. Sarrera: 12 euro.

### PLENTZIA

► **Itziarren semeak, Emon eta Dj. Julen.** Uztaileak 10, barikua. 21:00etan.  
► **Madera Core, Critickers eta Scum to the lider.** Astilleron. Uztaileak 22, eguaztena. 22:00etan.

### GORLIZ

► **Kantaldia: Lirain abesbatza, sopranoa eta pianojoleagaz.** Elizan. Uztaileak 11, zapatua. 20:15ean.  
► **Gospel Kantaldia The Upper Rom-en eskutik.** Elizan. Uztaileak 19, domeka. 20:00etan.  
► **All Jazz Era.** Eliz Plaza. Uztaileak 23, eguena. 23:30ean.



Paella Eguna Aixerrotan

### ► Lehiaketa

## Paella Eguna

Dagoeneko dena prestatzen ari dira Itxas Argiakoak Paella Egunerako. Aurtan, uztailearen 25ean, zapatuan, izango da. Lehiaketan parte hartzeko, 10:30ean, izena emateko epea zabalduko da; 12:00etan, Itxas Argiako dantzari txikiak; 13:00etan bertsoak; ordu erdi beranduago paellen aurkezpena; 17:30ean, sari banaketa burutuko da; eta eguna ondo amaitzeko, 18:30ean, Aker Beltz taldeak dantzarako aukera bikaina eskainiko du.

• **Non:** Getxoko Aixerrotan • **Noiz:** uztaileak 25, zapatua.

### SOPELANA

► **Udako Musika Zikloa.** Kurtzion. Uztailearen 27tik 31ra. 20:00etan.

## ZINEMA

### GETXO

► **Gaurik laburrena.** Biotz Alai plazan. Uztaileak 6 eta 7. 22:00etan.  
► **Zinema Udán: Eutsi filma.** Biotz Alai plazan. Uztaileak 9, eguena. 22:00etan.

### GORLIZ

► **Zinea euskaraz: Animal Channel.** Pilotalekuan. Uztaileak 18, zapatua. 22:30ean.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Zaruela: Katuska.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztaileak 10, barikua. 21:30ean. Sarrera: 15 euro.

## BESTEAK

### BERANGO

► **Loiolara txangoa, Karabiazpi Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartearen eskutik.** Uztaileak 11, zapatua. 08:00etan.

### BARRIKA

► **Txangoa: Aralar-Lekunberri.** Uztaileak 11, zapatua.

### SOPELANA

► **Larrabasterrako Karmen jaiak.** Uztailearen 16tik 19ra bitartean.  
► **Nazioarteko Dantza Jaialdia.** Udaletxeko plazan. Uztaileak 26, domeka. 20:30ean.

### GETXO

► **Bertso Saio Mundiala.** Biotz Alai plazan. Uztaileak 15, eguaztena. 22:00etan.  
► **XXV Nazioarteko Folklore eta Dantza Jaialdia.** Biotz Alai plazan. Uztailearen 21etik 23ra. 22:00etan.  
► **San Inazio jaiak.** Uztailearen 29tik abuztuaren 1era.

### LEMOIZ

► **Piragua, 7 eta 12 urte bitarteko umeentzat.** Armintzako portuan. Uztaileak 9, 23 eta 30ean. 11:00etatik 13:00etara. Sarrera: 40 euro.

### URDULIZ

► **Santa Marina Eguna.** Santa Marina haitzetan. Uztaileak 20, astelehena. 10:00etatik aurrera. Jarduerak egun guztian zehar.

### GORLIZ

► **Udako Euskararen Eguna.** Iberrebarrin (euria bada, pilotalekuan). Uztailearen 23an, eguenean. 11:30etik aurrera.  
► **Santiago Jaiak.** Uztaileak 24-27.  
► **Paella lehiaketa.** Uztaileak 25.

### PLENTZIA

► **Erdi Aroko Azoka.** Uztailearen 30etik abuztuaren 2ra.



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



# Euskarashowa 2009

Ekainaren 19an Euskarashowa kultur arteko karaokea egin zen Erromoko Santa Eugenia plazan Kantuketan musika jaialdiaren barruan. Orain arte Algortako Kasinoan eta abendu partean egin izan da karaokea; aurtan, kalera atera gura izan dute, herritarrei zabaltzeko. Betiko getxoztarrak, getxoztar barriakaz igo ziren eszenatokira; musika herriak elkartzeko tresna egokia izan da.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Ereaga hondartza

XX. mende hasieran

Eguzkiak berotzen duen egunetan, milaka lagun hurreratzen da metroan Ereagara. XXI. mendeko plazeretakoa da hondartza. Bainujantzia edo bikiniak jantzi (edo erantzi) eta orduak ematen ditugu hondarretan etzanda, ezer egin barik. Hau bai plazera! Argazkian ikus daitekeenez, joan den mende hasieran hondartzan batzen ziren inguruko gizon-emakumeak. Ez dira planak lar aldatu. Baina, badago asko aldatu den faktorea: janzkera. Beltzarantzeko azala bistan utzi ordez, atorra, txaketa, jantzia, galtzerdiak eta zapatak janzten zituzten eguzkitatik babesteko. Azaleko kolorea aldatu da, baina ez kamara aurrean parartzeko dugun estiloa.

[berbetan]

Antonio Quintanagaz batera, 1976-77an sortutako EHGAM (Euskal Herriko gay, lesbiana, transexualen askapenerako mugimendua) alkarteko sortzaileetakoa da Imanol Alvarez (Bilbo, 1956). Badira 20 bat urte haur-gazteen irakaskuntzatik zelanbait aldentuta daraozenak, baina ez urrunegi, “irakasleen irakasle” delako IRALE ekimenean. Sexu askapenaren onarpenari dagokionez, normaltasuna itxurakeria izan daitekeela dio; ez ei gara diogun bezain aurrerakoiak. Halere egoerak onera egin duela ere onartu beharrekoa da, batez ere lege kontuetan: OMEk homosexualtasuna buruko gaitzen artetik kendu zuen (1990), Izatezko Bikoteen legea, ezkontzeko baimena, umeak adoptatzeko eskubidea etab.

# Imanol Alvarez

## ostadarrak badu oraindino argi-ilunik

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—EHGAM sortu zenutenetik hamaika ilbete igaro dira, argitu du egunak?

—Neurri batean, oraindino batzuetan hodeiak badira. Gizartea asko aldatu da. Homosexualitateari dagokionez, Euskal Herrian aldaketa onerako izan da. Gaur egun kale-inkesta egiten baduzu, seguru ehuneko handi batek esango lukeela “oso ondo, norberak gura duena egin dezake bere gorputzagaz, bizitzagaz” etab. Hori da politikoki zuzena dena. Beti dago “baina”-ren bat, ikusiko bagenu zirrikitu batetik pertsona horrek zer egiten duen, askotan sorpresa jasoko genuke. Jendeak sinesten du hala sinetsirik duela, baina egunerokoa, gehienoi gertatzen zaigu, ideia edo ustezko konbentzimendu asko eskema moduan grabatuta ditugula buruan, baina ez benetan geureganatuta; orduan, edonoiz sortzen dira portaera matxistak, arrazistak, homofoboak, sexistak. Maila teorikoan gehiengoak oso ondo deritzo, praktikan ikusi beharko! Batzuetan konturatu barik egiten dugu, benetan sinesten dugulako; beste batzuetan, itxurakeria da. Gizartearen zatitxo batek segitzen du homofobia izaten, homofobo amorratua; faxistak beti

egon-egongo dira. Uste dut Euskal Herrian, zorionez, horrelako jendea, gutxiengoa dela. Beste auzi bat bada, azken urteotan askotan aipatu dugu, beti erdi bel-durrez txarto interpreta daitekeelako: gero eta etorkin gehiago datorrela urrutiko kulturetatik, eta kultura horiek guztiak, ia salbuespenik barik, matxistagoak, sexistagoak, homofoboagoak direla, batzuk are sexofoboagoak ere. Ez dut beraien kontrako mezurik zabaldu gura, baina kontuan hartu behar dugu, beste erronka bat da, beste arrazoi bat denok lanean segitzeko. Erakutsi behar diegu zein den gure ikusteko modua eta “nolabait hezi” behar ditugu antimatxismoan, antisexismoan, askatasun sexualean.

### “Ustezko konbentzimendu asko eskema moduan grabatuta ditugu buruan, baina ez geureganatuta”

—Etorkin izatearen zamari, beste sexu joera bat izatearena gehitzen zaio.

—Zama biderkatu egiten da, batzuetan geometrikoki: etorkinak badu arazoa, gay-lesbiana bada bikoitza, emakumea izanda hirukoitza, beltza laukoitza... Bestalde, uste

dute gure gizartea perfektua dela, justuen... Ez da egia, gizarte gehienek dituzten akatsak edo antzekoak dauzkagu. Etorkinena errealitate bat da, eta ezin dugu beste alde batera begiratu. Egia da zaila dela jakitea zelan behar egin esparru horretan. Adib. orain urte batzuk hasi ginen, arrakasta handiagoagaz ala txikiagoagaz, harremanetan jartzen kultura diferenteetako elkarrekaraz: magrebtarrakaz, Afrika beltzekoakaz, ijito elkarrekaraz (adib. Iniciativa gitana) etab. Ez dakit esaterik dagoen, esango dizut, ginen diot, izan ere bageneukalako adostuta hitzarmen bat Iniciativa eta EHGAMen artean, oso sinplea eta oinarritzkoa, hurrengoan zetzan: ijito bat inplikaturata zegoen kasu

baten barri izanez gero, biktima zein erasotzaile izan (askotan hurreratu zaizkigu ijitoak laguntza eske arazoak izan dituztelako beraien zirkuluan edo hortik kanpo) haiek harremanetan jartzea elkarlanerako, eta alderantziz; konpromisoa ere hartzen zuten





homosexualitatearen gaia beraien komunitatean lantzeko. Bertan behera lotu zen, Eliza Ebanjelikoa tartean sartu zelako.

—Elizagaz topo egitean...

—Zelan da, “el comandante mando a...”. Elizagaz egiteko oso zaila dugu; beste erronka bat. Islama, katolikoa, ebanjelikoa... Hemengo guzti-guztiak homofoboak, matxistak eta sexistak dira, kontra joan behar dugu.

—Azken boladan sexu joeren askatasunaren eta parekidetasunaren aldeko hainbat lege onartu dira. Horiekaz bat doa gizartea? —Estatu espainiarreko legedia arlo honetan nahiko, oso aurrerakoia da. Orain 30 bat urteko egoeragaz alderatuz, gaurkoa zoragarria da lege aldetik, gizarte aldetik ere bai. Askok haluzinaziotik urten barik daude, ezin sinetsirik zenbat sufritu zuten eta orain zein ondo bizi garen. Ondo hori erlatiboa ere bada, adib: kontratatu barria zen transexual bat lanetik bota dute, disimulu barik, transexuala zela jakin bezain laster, Gasteizen gertatu da oraintsu. Zoragarritasun hori, ez da begitazioa, baina batzuetan izan liteke. Betiko galdera da: “Zer doa aurrerago, gizartea ala legeak?” Gehienetan gizartea, ez beti, kasu honetan ez. Zirkulu arraroa da: legeak egin dira gizarteak bultzatuta, baina parte batek egin du hori, beste parte atzean lotu da; bietan zein den handiagoa? Hori da eztabaida. Legeak aldatzea hezitzaile izan daiteke atzean lotutakoentzat; askok begi hobez ikusten du legeak alde badaude. Legeak aldaraztea horregatik zen horren inportantea.

—Durangoko oroitarriagaz gerra zibilean eta frankismoan hildako homosexualak, lesbianak... gogorarazi gura dituzue.

—Frankismoa orain dela gutxira arte heldu da, amaitu baldin bada. “Biktimak” ETArenek baino ez ziren, ez zuten onartu gura estatuko terrorismoa, “etxe barruko” indarkeria etab. Kezkatuta geunden, “biktima kontzeptu hori zabaldu behar dugu!”. Orain dela urte batzuk hedabideetan, zorionez, frankismoaren biktimez berba egiten hasi zen, “hasi gara terminoa zabaltzen, bazen garaia!”, baina, biktima horiek danak gudariak, alderdi komunistakoak, sindikalis-

tak etab. ziren. Hori izan barik ere jende asko eta asko jazarria, torturatua eta hila izan zen, bakar-bakarrik botereari gustatzen ez zaiion moduan maitatzeagatik, horietako gehienak anonimoak dira, eta benetan ahaztuak.

—Beti aldarrikatu izan duzue hezkuntza-aren garrantzia..

—Hezkuntzak berebiziko garrantzia dauka bizitzako edozein eremutan; hezkuntzak

### “Islama, katolikoa, ebanjelikoa... Hemengo eliza guztiak homofoboak, matxistak eta sexistak dira”

zentzu zabalean, irakaskuntzak, komunikabideek, gurasoek etab. Horietan guztietan lan egin behar dugu, guztiok, ez irakasleek bakarrik, dena uzten da irakasleen esku! Eta gehienetan ez gaituzte prestatu ere egiten, baliabiderik ere ez da egoten. Lan izugarria egin dugu irakaskuntza zentroetan, nahiko isilpean egin genuen, badaezpada ere, edo komunikabideei ez zitzaielako interesatzen. Hori ez zen berez gure eginbeharra, paraxutista legez sentitzen ginen; ezer baino hobea bazen, baina ez onena. Bitartean irakasleen prestakuntza eta erakundeek zentzuzko programa egitea bultzatzen ibili ginen. Adib. Bigarren Hezkuntzarako unitate didaktikoa prestatu genuen, asmoa zen Jaurilaritzako Hezkuntza sailak zentro guztietara helaraztea. Ez ziren ausartu, aurrerakoiegia iruditu zitzaion, irakasleak laguntzeko zentroetara

### “Gudari, sindikalista... izan barik ere jende asko hil zuten botereari gustatzen ez zaiion moduan maitatzeagatik”

baino ez ei zuten bidali. Euskal Herri osoko institutu danatara bidali genuen, gure poltsikotik ordainduta. Beste adibide bat da sexualitatea eta hezkuntza gaiak Euskaldunan egin genuen Edusex kongresu erraldoia: barne-kanpo adituakaz, jende piloak kanpoan lotu zen... Oso oihartzun txikia izan du. —Bullying delakoaz asko berba egin da,

baina ez ei da ikertu kasu horietan zenbaitetan izan diren homofobia-eta eragileak.

—Batzuetan aztertu da, baina ez da publiko egin, norbaiti ez zaiolako interesatu. Jakin badakigu kasu horietako asko homofobiagatik izan direla. Proposa dezakegun bakarra da, irakasleak eta gurasoak inplikatu behar direla, eta ikasleak; nik uste kasu gehienak horiekaz berba eginez gero konponduko

liratekeela. Gurasoek kale egiten badute jai dugu! Hori da arazoa, ez diot gurasoak homofoboak direnik (batzuetan bai), diodana da gehiegitan gutxiegi arduratzen direla seme-alaben hezkuntzaz, heziketa guztia irakasleen esku uzten dutela.

—Ama-ama eta aita-aita gurasoak izatera oraindino ez gara ohitu.

—Adopzioaren kontuagaz hastean, edo lesbianen seme-alaba biologikoen kasuan, kontatzen zidaten “eskolan arazoak egon daitezke, umeak krudelak dira...”; nik esaten nien: orain 15 urte nire auzoan ez zegoen beltzik, etorri zirenean eta haurrak eskolara joaten hasi, ume guztiak barre egiten zioten ume beltz bakar horri. Konponbidea zein zen; ume beltzak eskolara ez eroatea? Ez; irakasleak, umeak eta gurasoak heztea, aniztasunean bizitzen ikasi behar dute, txikitatik.

—Lesbianek, emakumezkoen zama ere badaroste. Homosexualak baino ezkutuago daudela dirudi.

—Emakumeak bizi duen errealitatearen isla da. Hitzaldi baterako deitu, eta izugarri kostatzen zaigu prest dagoen emakume bat aurkitzea. Mendetako zama daukagu barnertuta, emakumeek ere bai: “emakumeak isila-

goak, etxeko kontuetan sartuta...”. Euskal Herrian betidanik egon dira plaza gizonak, plaza andrerik oraintsu arte ez! Egun bate-tik bestera ezin dira gauzak aldatu, apurka-apurka egin behar dugu; kostata, baina badoaz aldatzen.

—Hedabideek lekua egin diete gayei, helburu egokiagaz? Sarriegi ez al dute “zoro” itxura goraiatzeko?

—Garai batean gai hau ez zegoen serio tratzerik inongo komunikabideetan, ez zen lantzen edo maritxuen txistek kontatzeko baino ez zen egiten. Ageriki gay ziren lehen pertsonaia famatuak zoro edo lumadunak izan ziren; ez daukat ezer lumaren kontra, baina luma bortxatu, artifizial eta derrigortuaren kontra bai. Askotan hori komunikabideak berak bilatzen zuen, pentsatuko zuelako gehiago salduko zuela, agian beldurra ematen zuelako modu dibertigarrian egiten ez bazuten, audientziak ez zuela onartuko... Audientzia neurgailuak begiratzean, konturatzeko gara gizartea praktikan oso atzerakoia dela, eta pentsatuko zuten: “badaezpada, astiro-astiro”.

—Trapuzko Espartina eta Urrezko Hirukia banatu barri dituzue, Quirogari eta Laura Bugalhari.

—Sindikatu eta alderdi politiko bateko TransGaliza elkarteak sortzaileetakoak maiztasun atxilotu zuten, tratatu txar psikologikoak jasan zituen inkomunikatuta zegoela. Arrazoi ofiziala agiri-faltsutzea da. Etorkin langileei-eta paperak egiten laguntzen die, horietako nahikotxo antza transexualak ziren. Pasaportearen “Juan/Hombre” ipini arren, berak eskatutakoa ipintzen

### “Ez dago benetako faltsutzerik, Bugalho atxilotzeko benetako arrazoia da bere lana gustatzen ez zaiela”

zuen, adib. “Juanita/Mujer”; uste zuelako erosoago sentitzen zirela eta ez irainduta, errespetuagatik eta aldarrikapenagatik egin zuten. Urtetan Gobernu delegazioak arazo barik onartu ditu paperok. Ez dago benetako faltsutzerik, erresidentzia txartelean “Juan/Hombre” ipintzen duelako. Atxilotzeko benetako arrazoia da bere lana gustatzen ez zaiela. Pertsona horregatik atxilotzea salatzea da, eta bere ausardia eskertu eta elkartasuna adierazteko eman diogu saria. Quirogarena, argi dago: Aita Santuagaz bat egiteagatik preserbatiboaren kontuan; oso

larria iruditzen zaigu, osasun publikoaren aurkako eraso, arduragabekeria duen karguagatik; are gehiago, jakinda PPKoek eten-gabe diotela: “gauza guztien gainetik bizitza dago”, bada, bizitzari fabore txikia egiten diote, jende askoren bizitza arriskuan jartzen dute-eta.

—Amaitzeko, zeintzuk dira gaurko EHGAMen borroka ildoak?

—Betikoak. Legeen aldetik gauza batzuk, gutxi, lotzen dira, batez ere transexualitate kontuetan, atzeritartasun kontuetan hain zuzen. Batez ere gizartean lan egin behar dugu, aurrera jarraitu behar dugu aniztasun sexualaren onarpenaren bide honetan, hori da inportanteena, eta horren barruan milaka gauza dago. Aurten, Stonewalleko (New York, AEB) gertakizunen 40. urteurrena denez horiek ere gogoan ditugu, taberna horretan gertatutako istiluei zor baitio nolabait gaur egungo gay mugimenduak bere hasiera. o

aldizkaria **etxean**  
jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonia.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito).

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37



## Arrazoirik ez dugulako

DEIA egunkariko argazkilaria da Oskar Martinez getxoztarra 1996tik. Beste zenbait komunikabide eta agentziekin behar egiten du lantzean behin. Baina ogibide izateaz gain, zaletasuna da Martinezentzat argazkilaritza. "Fotografia" atal honetarako, bere ibilbidea laburbiltzen duten zenbait irudi aukeratu ditu. Ez ditu teknikoki zuzenenak direnak hautatu, maiteenak dituenak baizik. Askotan ez dakigu zergatik ditugun gustuko gustuko ditugunak; ziur asko, horrexegatik izango da, arrazoirik ez dugulako horiek maitatzeko.

Argazkiak: **Oskar Martinez**









I

# Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA  
ETA  
EDERGINTZA

HARTU TXANDA

Alangobari 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

[zinema]

## Berba bakoa aztertze aldera “Zinema mutuaren oihartzunak” lantegia eskainiko da Leioako campusean



Koldo Serra getxotarra

**EHUK** antolatzen duen X. Bilbao Arte eta Kultura udako ikastaroen barruan, zineak ere badauka lekua. Aurten eskainiko duten zine-lantegia hilaren 13tik 17ra izango da (izena emateko epea hilaren 10era arte dago zabalik) Leioako Arte Ederretako Fakultatean.

“Zinema mutuaren oihartzunak” lelopean Patxi Urkijok koordinatzen du lantegia, eta besteak beste, hurrengo adituek (zinegile, zuzendari, unibertsitateko irakasle e.a.) jardungo dute lantegian zehar berbaldiak ematen: Kepa Sojo, Enrique Urbizu, Koldo Serra, Nacho

Vigalondo, Borja Crespo eta Borja Cobeaga. Gaztelaniaz eskainiko den lantegi horren helburu nagusiak, edota landuko diren gaiak, esaterako ondokoak dira: Fikziozko ikus-entzunezko komunikazio sistema aztertzea, batez ere elkarriketa bako antzeppen eta adierazpen bereizgarriak, joan den mendeko lehenengo hamarkadan zine mutuak proposatutako narrazio tekniken azterketa,

«Koldo Serra, E. Urbizu, Borja Crespo, Kepa Sojo, Nacho Vigalondo e.a.»

zine mutuaren baliabideak komunikazio adierazgarria bermatze aldera entzunezko zinematografiara zelan eroaten diren zehatz-mehatz aztertzea, Hollywoodeko klasikoak (Cecil B. De mille, John Ford, Howard Hawks, Alfred Hitchcock...) ahozko hizkuntzaren komunikazio sistemagaz aurrez aurre ipintzea, trantsizio garrantzitsuak (flashback/flashforwards, musika sekuentziak, kontenplazio dramatikoak e.a.) zein kausazko zuzendaritza eta muntaia teknikak lantzea e.a.

Lantegiak goiz eta arrasti egingo dira, hurrengo ordutegian: 08:00-14:00 eta 15:00-20:00, eta matrikulak 160 euroko prezioa dauka (80 euro ikasleentzat eta langabetuentzat). ○

Informazio gehiago: [www.bak.ehu.es](http://www.bak.ehu.es)

## Bilbao Live jaialdia

Hilaren 9tik 11ra Kobetamendin batuko dira musika jaialdi erraldoien milaka zale



Placebo taldea

**Azkenaldian** txakurrari ardiak legez ugaldurak dira gure bazterretan musika jaialdi erraldoiak, gehienak zaleen sakelak ondo husten dituzten horietakoak. Ostera, gogoko nazioarteko taldeakaz gozatu ahal izateko aukera apurrenetakoak eskaintzen dituztenak ere badira, horrenbestez askok esango duen legez “gaitzerdi!”

Hala, Kobetasonik jaialdia kritikaren igarazitik argi-ilunakaz pasa ostean, Bilbao BBK Live jaialdia hartuko du laugarren urtez Kobetamendik hilaren 9, 10 eta 11n. Eguenean joko duten taldeak ondorengoak dira: Depeche Mode, Basement

Jaxx, Editors, The Ting Tings, Vetusta Morla, The Gaslight Anthem, Motor, eta Lain. Barikuan jardungo duten taldeak hauek dira: Jane's Addiction, Kaiser Chiefs, Echo and The Bunnymen, Dave Matthews Band, Chris Cornell, Babyshambles, Supergrass, eta El Columpio Asesino. Eta azken egunekoak: Placebo, Primal Scream, Cycle, Asian Dub Foundation, Fischerspooner, Baddies, The Phenomenal Handclap Band, Expatriate eta Ama Say. Bestalde, jaialdira hurreratu ezin duenak uztailan zehar ETB3 katean kontzertuok ikusteko aukera izango du. ○

Informazioa: [www.bilbaobbklive.com/2009](http://www.bilbaobbklive.com/2009)

## disco barria > Celsius32

Getxo Sound ekitaldira (ekainak 26) hurreratu zirenek Celsius32 talde getxotarraren lan berriko doinuak entzun ahal izan zituzten. *Viento a favor* disko berriak “estilo rockeroagoa, ahots landuagoa eta kide berriak” ekarri dituela adierazi dute taldekideek. Fragment records disketxeagaz plazaratu du David Gandara (ahotsa eta gitarra), Samuel Cerrato (teklatuak), Igor Almagia (bateria), Aritza Segurota (baxua) eta Igor Falconek (gitarra) osatzen duten boskoteak lan berria. Hamabi kantuz osatutako diskoa rock melodikoaren haizetan mugitzen da, piano eta teklatuak ematen dioten norabidearen berezitasunagaz.

Informazio gehiago: [www.celsius32.com](http://www.celsius32.com)

## dokumentala > Itoiz iruditan

Zarauzko Rockumentalak! zine musikaren gaineko zikloaren barruan aurkeztu dute *Itoiz* dokumentala, Mutriku-Ondarroako musika talde ezagunaren ibilaldia jorratzen duen lana. Euskal rock talde mitikoak bere lehenengo diskoa plazaratu zuela 30 urte betetzen direnean osatu dute Iker Treviño errealizadoreak zuzendu duen dokumentala. 1978an hasi eta hamarkada bat iraun zuen ibilaldian, sortzaileek azaldu duten legez, *Itoiz*, *Ezekiel*, *Musikaz Blai*, *Espaloian*, *Ambulance...* lanetarako ibilitalo sorkuntza bideak (jazz, rock progresiboa, folk, pop, ska etab.) zein taldearen bizipenak biltzen ditu pasa den urtean filmatu eta ordu bat inguru irauten duen dokumentalak.

## discoak

**Inox**  
Muted  
Baga Biga



Talde bizkaitarra hirugarren lanagaz dator oraingo honetan. *Inox* hamabi kantuk osatutako lan barruan, garrantzatsunik bako metala entzun daiteke, baita soinu zaindugoa ere. Abadiñoko bandak arlo elektronikoak jarraitu du, euren konposizioak hip hop, rap, pop eta beste hainbat doinugaz zipriztinduz.

**Fandango**  
Kepa Junkera  
Ekar



Errekaldeko trikitilariak *Fandango Provenca Sessions* bilduma lana aurkeztu du Melonius Quartet soka taldeagaz batera kantauk moldatuta. Junkerak, sonoritate barriak bilatu gura izan ditu trikitia munduan barreiatuta diren musika tresnakaz uztartuz. Orotara, hamalau abestik osatuta dator disko barria.

**Papera eta Kartoia**  
Kerobia  
Gor



Nafarroako taldeak trilogiaren bigarren alea kaleratu barri du. Lan hau gogoeta eta konposizioan eszenatoki barrien bilaketan oinarritzen da. Kerobiak eskaintzen duen emaitza “Rose Escargot” eta trilogiaren lehenengo zatiaren arteko oreka da; beste behin ere joera barrituak uztartuz. Testuei dagokienez, berebiziko pisua mantentzen dute kantuen barruan.



# GAVRKO

GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5, ALGOR-  
TA

etorri  
eta  
ikusii!!

**MORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleagaz bat)  
Tf. 94 491 23 79  
Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroango dizugu  
gasoleoa

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure erosketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00

**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

**VIEJO CAFE**

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03  
ALGORTA

[liburuak]

## Erotismoa euskaraz

**Euskal Poesia erotikoaren antologia**  
plazaratu du Txalaparta argitaletxeak

**Beroaldiak** eta beroaldiak dira. Gorputzaren tenperatura eragile ezberdinek igorarzen dute, sasoz kanpo berotu ere. Horietako batzuk barne-eragileak dira, eta horien artean zenbait garunak sortzen ditu. Bai, irakurle, bururatu zaizkizun sexu-beroaldiez gabiltza, eta orrialde honetan ohi legez, irakurmena dugu buru barne-eragilea.

Euskarazko literatura erotikoa urria dela dioena gaitzestu beharrean gaude gaurkoan, ezezaguna dela onartzen badugu ere, ugarria dela esan daiteke inoren beroaldia espero barik. Ezjakintasunari oldartzeko, oraintsu argitaratu den *Euskal Poesia Erotikoaren Antologia* (Txalaparta) liburua izango dugu berbagai. Edorta Jimenez,

**«Josune Muñoz, Edorta Jimenez eta Igor Estankonak antolatu dute bilduma»**

Igor Estankona eta Josune Muñozek antolatu duten euskarazko olerki erotikoen bilduma, oraindik kaleratu barik zela, Bermeoko "Uda Erotismoz Beterik dator" jaialdian eta Larrabatzuko "Literaturia" jardunaldietan aurkeztu zuten, eta 70 bat idazleren euskarazko poema erotikoa baten ditu, besteak beste: Itxaro Borda, Miren Agur Meabe, Arantza Urretabizkaia, Kirmen Uribe, Xabier Lete e.a. Jimenez,



Edorta Jimenez, idazle mundakarra

Estankona eta Muñozen antologiako aukeraketaren denbora-muga, Jimenezek esan legez, 68/08 da, hau da 1968tik joan den urtera arteko poema hautatuak baino ez dituzte sartu. Mundakarrak Txalaparta argitaletxearen aldizkarian azaldu legez, "ez gara sartu poesiak lesbo, homo, hetero edo horrelako kategorietan sailkatzen... hori balizko inakurlearen lana dateke".


Antologia oro bezala, dagoenetik egin-dako hautaketa lana da, aukeran dauden batzuen bilduma; beste batzuk ere badira, eta euskarazko literatura lan erotikoa luzeak ere bai. Horietako batzuk Txalapartaren Literatur sailean aurki daitezke. ○

liburuak



**Maitasuna da geratzen den bakarra**  
Agustin Fernandez Paz  
Elkar

Idazle galiziarren *O único que queda é o amor* lana itzuli barri du Uxue Alberdi elgoibartarrak. Hari ikusezin batek, liburuko pertsonaien bizitzak elkartzen ditu. Denak maitemintzen dira, baina, aldi berean, desamodioaren mingostasuna ere ezagutzen dute.



**Gose jokoak**  
Suzanne Collins  
Alberdania

Koro Navarrok itzuli du mundu osoan 200.000 ale zaldutuen best-sellerra. AEBen hondakinen gainean hainbat gazte behartuko dituzte Gose Jokoetan parte hartzeri. Liburuko pertsonaia batek, arauak hautsiko ditu eta egoerari aurre egingo dio.

[kirola]

## Piraguismo ikastaroak

**Getxo Kayaka** elkarteak **uztailan eta abuztuan** eskainiko ditu ikastaroak



Danatarra lau ikastaro txanda eskainiko dituzte

**Getxo Kayaka** elkarteak hil honi eta hurrengoari begira, astelehene eguenera bitarteko piraguismo ikastaroak antolatu ditu. Danatarra lau ikastaro-txanda eskainiko dituzte: lehenengoa hilaren 6tik 9ra, bigarrena hilaren 20tik 23ra, hirugarrena abuztuaren 17tik 20ra, eta azkena, abuztuaren 24tik 27ra. Ondorioz, ikastaro bakoitza lau eguneko izango da eta eguneko ordu eta erdiko iraupena izango dute jardunaldiek.

Bagileko ikastaroen ordutegia 19:00etatik 20:30era izango da, eta agorrilekoen txandatan hurrengoan artean aukeratzea egongo da: 10:0-11:30, 12:00-13:30 eta 16:30-18:00.

Antolatzaileek adierazi dutenez, izena emateko epea ikastaro bakoitza hasi baino aurreko egunean itxiko da, eta aukeratutako txandan egoteko arazorik balego (6-8 laguneko taldeak sortuko dituztelako) elkar-tekoak ipiniko lirakeke harremanetan ikastaroa egin gura duen horregaz.

Horrez gainera, ikastaroetan parte hartu gura duenak bete beharko duen eskakizun bakarra uger egiten jakitea da, hori bai "adin txikikoen kasuan baldintza hori betetzen dela ziurtatu beharko dute gurasoek izen-emate orria sinatuz".

**«Lau eguneko ikastaroak (eguneko ordu eta erdi) Arriluzen eskainiko dira»**

Piraguismo ikastaro hauek Arriluzen (Getxo) egingo dira eta 60 euroko prezioa dute (ordaintzeko modua: kontu-korrente bidez, ohi legez, izena emateko dokumentazioagaz batera ikastaroko lehenengo eguneko ordain-agiria ere aurkeztu beharko dute partaideek).

Horrenbestez, piragua ezagutu eta arraunagaz gozatu gura duenak eta udako beroan freskaldi sasoiatsua izan gura duenak badu zer aukeratu. ○

Harremanetarako: 635739910-675709490  
getxokayaka@yahoo.es

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA KIZOL moda**



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.** SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Elijah CartWright** > *Moby Dick* bakarlaria

“Egunero barne mikro-mestizaje prozesu garrantzitsua gertatzen da gure buruan”



Elijah CartWright, emanaldi batean

Urruneko herri mistiko-exotiko batean jaio bazen ere, Getxogaz lotura estua dauka Elijah CartWright abeslariak (Frankfort, Kentucky 1982). Urte luzez, NUN musika familiagaz batera aritu bada ere, azken hiru urteotan bakarlaria ikusi ahal izan dugu modako lokaletan. Algortako jaietan, uztailearen 29an, DJTequierocoamigo DJ-agaz ikusi ahal izango dugu. Bikote “bizarroa” ikusteko aukera parebakoa.

—Zerk eroan zaitu bakarka abestera?

—Bakarlaria aritu naiz beti zentzu askotan, bai musikan bai beste eremuetan (sexuan, patxaran lehiaketetan...). Familia eduki nuen, NUN izenekoa, eurekaz zuzeneko musikaren efektu terapeutikoaren onura aurkitu nuen. Orain dela hiru urte gutxi gorabehera, Algortako "UK-Saloon"-en hasi nintzaion jendeari lehenengo pertsonan gauzak kontatzen.

—Moby Dick izenagaz ikusten zaitugu karteletan. Zergatik?

—Aukera posible bi dago. Ondo geratzeko, "Led Zeppelin"-en "Moby Dick" kantari

erreferentzia egiten diola esango nuke; baina nire herriko aldizkariari, gau etiliko baten ustebako ondorioa dela esango diot.

—Zer eman dizu bakarlaria abesteak, taldean abesteak eman ez dizuna?

—Publikoan dauden neska guztiak niri begira daudela ziurtatzen dut.

—Zer abesten duzu?

—Hasieran, kolore guztietako bertsioak jorratzen nituen, ikuspuntu pertsonaletik. Gaur egun perspektiba aldatu dut. Kanta propio batzuk sortu ditut bidean, barneko gauza konkretu batzuk kanporatzeko, eta jorratzen ditudan bertsioak aukeraketa pro-

zesu sakonagoa izaten dute. Myspace-ko orrialdea (<http://www.myspace.com/moby-dicklove>) lehen aldiz betetzean adjektibo zerrenda handia eskaintzen digu estiloa deskribatzeko. "Acustica / Musica de sanacion y meditacion / Infantil" etiketak aukeratu nituen... Deskripzio zehatzena dela uste dut.

—Zein eragin izan duzu?

—Egia da musikari konkretu batzuk eragin garrantzitsua dutela guztiongan, baina sub-konszienteak uste dugun baino espektro zabalagoa dauka. Azkena rock jaialdiko taldeetatik hasita, igogailuen hari musikaletik, edota Neil Young-en diskografia osotik

**«Kanta propio batzuk sortu ditut, barneko gauza batzuk kanporatzeko»**

pasatuz eta "Politono" kulturaraino, gure buruan eta gure ariman eragin handia daukate. Egunero barne mikro-mestizaje prozesu galanta gertatzen da gure buruan. Horrela eraikitzen da bakoitzaren estiloa... baina, egia esan, Aitor Gorosabel Garai da nire eragin bakarra.

—Bertsio berezi batzuk dituzu: Britney, Skatman...

—Hasieran etilismo radikalaren ondorioez egin dugu berba. Gure artean beste substantziak dira... Britney Spears-en bertsioarena kasu berezia da. Teenager popstara izan ondoren, Rock attitude-aren paradigma bihurtu zen (lodiuta, drogatuta...) eta hori da datozen belaunaldiak eta Algortan dauden punk taldeek jarraitu behar duten eredu.

—Etorrizunarako zer asmo daukazu?

—Musikalki kontzertuak ematen jarraituko dut. Etxean demo txikia grabatzen nabil. Espiritualki eta sexualki Jainkoagaz kontaktuan jartzen saiatuko naiz. Eta fisikoki Karbohidrato-Komplexuen aurkako Guda hasiko dut. ○



**Bai Euskarari Ziurtagiria**  
balioa eta berrikuntza · valor e innovación



ZADORRA-ETXEA  
**AGURAIN**



NEKATUR  
**DONOSTIA**



ERANDIO  
ARLAN



SOKOA  
**HENDAIA**



ELKAR  
**IRUÑEA**



**IURRETA**  
IURRETA INSTITUTUA



**GASTEIZ**  
MENDIA OPTIKA

**1.600 entitate baino gehiago ziur daude**

ziurtagiriaren elkartea  
902 430026



baieuskarari.org



[nire bazter kuttuna]

**Armando Llamosas** > Txurruka moila

“Moila hau Txurrukak Areetako hondartza mantentzeko egin ei zuen, itzela gero”



“Batzuetan barrakakaz, besteetan hutsik, gauetan bikoteak autoan inintimate bila, askotan kanaberaz josiak arrantzan”

**Itsaso inguruan** dauden lekuak askotan gure gustukoak izaten dira. Ez dakigu zergatik; bai natura hutsa delako, bai gure jatorria gogorarazten digulako, bazter horiek oso hurbil ditugu. Gizakiak askotan izorratzen du itsasoaren xarma, adibide asko ditugu gure inguruan. Aitzitik, beti ez da horrela, eta batzuetan itsasoa eta gizakia batzen direnean emaitza ikaragarria sor daiteke. Honela gertatu da Getxoko nire bazter kuttunenetako batean: Txurruka Moilan.

Hor dagoen paisaia guztiz gizatartuta dago, edonora begirata ere, gizakiaren eskua ikusiko dugu: Portugaleta, Areeta, Santurtzi edo Algorta, eraikinez beteta

agertzen zaizkigu. Naturak eman diguna, hau da, ura eta mendiak, historiak eta gizakiek (meatzak eta portuak batez ere) moldatu dituzte; beraz, antza izan arren, naturatik urrun daude.

Moila hau Txurrukak Areetako hondartza mantentzeko egin ei zuen, itzela gero! Lehengo hondartza La Bolaraino heltzen zen, gune osoa hareatza zen, baina portua egin ostean korrante aldaketak hondarra eroaten zuen. Hori saihesteko eta Neguriko gizarteak behar bide zuen hondartza mantentzeko, Txurrukak, bere izena daroan lan erraldoia egin zuen.

Kuttuna izateko, ordea, zerbait gehiago

behar da, oroimenari edota sentimenduari dagokion zerbait. Gogoratzen dudana lekua, basatiagoa zen, porlana eta berdegune tartekatua. Batzuetan barrakakaz, besteetan hutsik, gauetan bikoteak autoan inintimate bila, askotan kanaberaz josiak arrantzan.

Nire umezaroaren lehen oroimen batzuk ere hor daude, gogoratzen dut gure aitak arrantzan irakasten zidanean, zelaian berun bategaz bota eta hartu, jo ta ke ondo egin arte. Leku basatia zen, gizakiak egindako leku basatia, orain barriz hezita dago, lorez beteta, azpiegituraz... xarma lapurtu bazaio ere oraindino erakusten digu gizakia eta naturaren arteko lotura ikaragarria. ○

[norajoan]

## Sentinel Rock Club

Giro euskalduna eta rock & rolla



Iñaki Susunaga

**Musikak** eta giro euskaldunak bat egiten dute Sentinel Rock Cluben. Iñaki Susunagak martxoan zabaldu zuen Erandioko Legazpi kaleko lokala. Musikari eta, batez ere, rock & rollari txokoa bilatu gura zion: “Musika beti gustatu zait; taldeetan jo dut. Ez dago baliabiderik musikari gazteentzat eta talde asko dago, gaztelez, ingelesez zein euskaraz abesten dutenak. Harreman handia daukat musika munduaren inguruko jendeagaz eta horregatik erabaki nuen lokala zabalteaz”. Taberna bataiatzeko oso gogoko duen Judas Priest taldearen kanta baten izena aukeratu zuen: The Sentinel. Solairu bi ditu tabernak. Goikoan, kontzertuak eskaintzen dituzte asteburuetan; behekoan, taberna dago eta ogitartekoak, pintxoak eta edariak har daitezke.

Musikazalea izateaz gain, euskaldun petoa da Susunaga eta, rock & rollari beza-

la, euskarari ere bere lekua eman gura izan dio: “Goizetan hurrenartzen den jendea euskaraz berba egiten animatu gura nuke. Musika euskalduna ipiniko dut; bezeroen ekarpenetara zabalik egongo naiz. Ez dakit jendea animatuko den; zoritxarrez, herri honetan euskarara gutxi entzuten da kalean. Agian, etorkizunean, ikastaroak antolatuko ditut, bezeroek horrela gura badute”. Orain arte, jende asko animatu da kontzertuetara: “Arbian, Motorsex, Undecimo Mandamiento... talde nahiko pasa da eszenatokitik dagoeneko”. Rock, blues-rock, pop-rock, punk-rock... aldaera guztiei ondo etorria egiten diegu Sentinelen: “Talderen batek jotzeko gogoia baldin badu nigaz harremanetan jar dadila. Ez dute ezer behar, instrumentuak eta musika ekipoa nik jartzen ditut”. ○

Legazpi kalea 4, ERANDIO  
Tf. 679 86 77 53



ARTAZA ETXEA  
jatetxea  
• gosariak  
• txuletoia • bakailoa  
• arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

## AREETA



BASALBO BASERRIA

## JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91  
MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI -  
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

Toponimoa > **Evaristo Txurruka**

**Evaristo Txurruka (kaia):**

Evaristo Txurruka (Izu 1841-Bilbo 1917) ingeniaria Bilbo kanpoaldeko portuaren diseinatzailea izan zen. Bere omenez eraikitako oroigarrian ikusten da itsasoa menderatu duen gizakia.



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)  
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxareriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

**Usategi kafetegia**



Usategi parkea z.g.  
Algorta

\*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Aspaldi honetan, bizitzako gauza onetaz gozaten zabilzta. Une egokia da, beraz, dituzun gura eta desirak asetzeko; oraindino egiteko guztiak ondo betetzeko.

AITZURRA



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Ez zaituz atsedean bila hasi, denbora soberan zeneukanean, ez zara gai izan etekina ateratzeko eta. Orain lanean hasi behar zarenean lan egin behar, ez dago besterik. Jai dagoenean jai eta lana dagoenean lan!

GARIA



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Eguraldi ona etorri da dagoeneko eta hondartzara joateko orduan, urtero bezala, erre egin zara. Babesteko, ez duzu krema hartzen, zertarako ezta? Azalak memoria du eta urte batzuk barru ezustekoak etorriko dira.

META



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Senitartekoen esanak zure erabakietan eragina izatea gura ez baduzu, ez egin kasu handirik eta saiatu lehenbailehen duzun arazo horri irtenbide egoki eta ona bilatzen.

OTSOA



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Gura duzuna lortu ezinik ibiliko zara, eta horrek urduritu egingo zaitu. Gainera, inoiz baino sentiberago agertuko zara jendearen aurrean, eta kanpoan entzuten dituzun gauza guztiak eragingo dizute. Animo eta ez etsi! Helduko dira garai hobekak.

HOSTOA



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Lanean, Europako hiri batera bidaia egiteko eskatuko dizute eta aste osoa kanpoan eman beharko duzu. Beraz, ez duzu oso gogoko, baina pentsatu zure lan baldintzak hobetzeko balioko duela.

LASTOA



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Aspaldi gustuko zenuen pertsona horrek zu ez zaren beste norbait ezagutuko du. Azkenean gertatu behar zuen. Urte hauetan guztietan, ez zara berarengara hurreratzeko gai izan eta.

HAZIA



**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Azterketen emaitzen zain zaude eta badirudi inoiz ez direla heltzen. Oso garrantzitsuak dira zuretzat, ikasketak amaitzeko zorian egonda, ez da gauza bera lehenengoan gaintitzea edo irailerako uztea.

ADARRA



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
Gauzak hobera egin dezaten egiten ari zaren ahalegina fruituak ematen hasiko da laster. Lan eskaintza hobea jasoko duzu eta gainera, zure bizitzan oso garrantzitsua izango den norbait ezagutzeko aukera izango duzu asteon.

EGUZKIA



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Lagunak duzun egoera gero eta txaragoa da, eta onik irten gura baduzu, saiatu beharko zara ahalegin berezia egiten. Ez izan horren buru gogorra zure kalterako baino ez da izango eta.

IRATZEA




**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Inoiz baino urduiago ibiliko zara, eta gainera urdaileko mina izango duzu egun batean bai eta hurrengoan ere bai. Ez egin tontakeriarik eta osagilearenera joan, hobe lehenbailehen konpontzea, gauzak okertu orduko.

NEGUA



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Zure bikotekidea oso pozik sentituko da zure alboan, eta hori berak emango dizun maitasunagaz igarriko duzu. Hurrengo asteetan, une oso politak biziko dituzue elkarren ondoan.



**KOSKA**  
irratia 108 FM

[www.koskairratia.com](http://www.koskairratia.com)

denborapasa

**LUMA aldizkariaren eskutik**

**HITZ GURUTZATUAK**

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1						■				
2						■				
3						■				
4			■							
5								■	■	■
6	■	■	■							
7							■			
8										
9										
10										

**Ezker eskuma**

1. Giza enborraren aurrealdearen behe partea. Abelen anaia hura. 2. Orkestrak lagundutako antzezlan dramatiko. Ospal. 3. Bizkaieraz, loreak. Bik eta bik. 4. Sarrera nahiz urteera. Intsektu odol xurgatzailea. 5. Irmoak. 6. Musulmanen hilabetea. 7. Kulunkatuz. Emakume izena. 8. Konforme. Detektagailu. 9. Huescako herria. Zur gogor. 10. Gipuzkoako ibaia. Gipuzkoako herria, Goierri.

**Goitik behera**

1. Hitz, ele. Arrain mota. 2. Aketz, ordots. Abar. 3. Haien beraien. Gai zuri preziatu, marfil. 4. Modua. Ekialde Hurbileko gutxiengo erlijioso bateko kidea. 5. Xederak, segadak. 6. Zaldia. 7. Barriketa, hitz aspertua. Ardi, hitz elkar-zeetan. 8. Pozik. Kubo puntuduna. 9. Lepo, sama. Alderantziz, izana. 10. Nekatu aditzaren oina. Erroma ere zuen enperadore.

**Soluzioak**

N	U	V	T	A	V	A	R	I	R	O
O	K	O	R	I	O	L	V	P	A	L
R	V	D	R	A	S	O	D	V		
E	N	V	A	K	U	B	V	Z		
N	V	D	V	M	R	A				
V	N	I	V	Z	I	A	T	E		
K	U	V	L	L	K	V	R	O		
E	R	A	L	D	E	O	P	E	R	A
N	K	A	I	N	S	A	B	E	L	

asmatu eta irabazi > **argia produktuak**



Nor da?

- **Mendian gora joatea oso gustuko du**
- **Zoritxarreko istripuan anaia galdu zuen**
- **Munduko 14 tontor garaienak osatu zituen 2002an**

> Aurrekoaren erantzuna: Aizpea Goenaga  
> Irabazlea: **Jone Fernandez Agirregoitia (Berango)\***

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean argia produktuak zozketatuko ditugu:  
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

**argia**

astekariaren biru  
hilabeteko harpidetza doan



• **Jolasak eta liburuak**

www.argia.com



ROSA. Mª BIGIOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

**Bittor Egurrola**

**SIMON OTXANDATEGI DANTZA TALDEA, 1956**

**Berangoko dantza taldea** (mutilena) 1943an hasi zen eta neskena beranduago, 1952an edo. Lorenzo Salaberria orduko parrokoa (txistularia ere bazen) eta Genoveva Elgue moja sekularra izan ziren nesken lehen talde honen sortzaileak. Neskei dantzak irakastera Bilboko "Dindirri" taldetik etortzen ziren. Argazkia, abuztuaren 4an, Sto Domingo de Guzman herriko jaietan aterata dago; neska taldea hor ari da Arku-dantzan. Sortu zenetik 66 urte igaro dira, baina Simon Otxandategi taldea eta Iñaki Gonzalez arduraduna ez daude lo. Datorren 13tik 19ra Dantza eta Kantuen III. Nazioarteko Jaialdia egingo dute. Informazio gehiago gura izanez gero, 22. orrialdean (Berangori dagokiona) duzu. ○

**Ezkerretik eskumara, atzetik hasita**

1. **dantzari txikia:** Rosa Mª Zabalgoitia.
2. **dantzari gazteak:** Rosa Mª Landa, Maritina Onaindia, Marisa Uriarte, Loli Bidea.
3. **dantzari gazteak:** Mª Asun Mas (urte askoan nesken talde arduraduna), Mª Carmen Gaubeka, Mª Bego Mendilibar, Rosa Mª Bigiola.
4. **dantzari txikiak eta txistularia:** Juan Atxurra, Amelia Sangroniz, Mª Sagrario Mas, Esther Sangroniz.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**

[aitormenak]

**XABI SOLANO** > Abeslaria eta trikitilaria

“Txikitan beti ibiltzen nintzen kantari, erratza hartuta gitarra jotzen”

Testua: **Ainhoa Lores**



**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien? Zergatik?**

Muhammad Ali esango nuke, egindako lanagatik orokorrean. Ez bakarrik boxeogatik, baizik eta politikoki ere.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Oso gautxoria naiz; beraz, taberna montatuko nuke. Dena den, txikia nintzenez abeslari izan nahi nuen, beti kantatzen ibiltzen nintzen, erratza hartuta gitarra jotzen.

**Ohitura txarren bat badaukazu?**

Ohea ez dudala egiten, ez zait batere gustatzen; badakit ohitura txarra dela, beti builaka ari zaizkit.

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat?**

Udara partean, lagun guztiak errekarera joaten ginela bizikletarekin. Beti geunden uda noiz etorriko zain denbora libre edukitzeko. Eskolan ere elkarrekin egoten ginen, baina uda desberdina zen.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Kafesnea galletekin edozein ordutan jatea.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**

New Yorkera joango nintzateke berriro ere. Hamazortzi urterekin Etzakit taldearekin hango Euskal Etxean jotzen egon ginen eta ordutik hona, noiz bueltatuko ote naizen pentsatzen aritu izan naiz.

**Abesti edo musika talde gustukoena?**

Egia esan, ez daukat gustukoarik. Musika desberdin asko entzuten dut; beraz, momentuan momentukoa. Orain, adibidez, Alice Russell, Amy Winehouse-eren estiloko musika, edo Sonidero Nacional ari naiz entzuten, baina datorren hilean auskalo.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Bizkaia orokorrean. Euskal Herrian dagoen herrialderik alaiena delako. Bertara jaietan joateak gustua ematen du, giro hobea dago eta. ○

**LABURREAN**— Ez da makala hernaniar honek musikaren munduan burututako ibilbidea, 1994an, Jon Mari Beasainegaz batera, Etzakit taldea sortu zuenetik. Garai hartan, disko bi grabatu zituzten taldea desegin zen arte. Honen ostean, Solanok Lau Itzal taldea sortu zuen, 2004an ordea, The Solanos taldea, bertan, 2006 urtera arte ibili zen. Trikitilaria Fermin Muguruzagaz ere aritu izan da lanean eta kontzertuak eskaintzen. Gaur egun, Esne Beltza taldean murgilduta dago eta Algortako jaien oholtza gainean kantari ikusi ahal izango dugu, hilaren 30ean San Nikolas enparantzan.

# EUSKARA, MERKATARITZARA ZERBITZU-GUTUNA



## ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

## ITZULPEN ZERBITZUA gehi@getxo.net

Urte osoan eta doan. Zure kartelak eta idatziak euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala.

## MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu aukeran.

## “DENDAKETAN” EUSKARA IKASTARO LABURRAK

Bezereoi arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak.

## EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen %100 itzuliko dio.

## MATERIAL SORTA INTERESGARRIA

Euskaraz edo ele bietan eta DOAN. “Zabalik/Itxita”, “Merkealdia”, “Eskaintza bereziak”, “Erreklamazio-orriak eskuragarri”, “Gabonetako loteria”. “Udako ordutegia”, “Oporretan gaude”, inprimakiak (fakturak, ordainagiriak...).

## EUSKARA BIZI

HEMEN ERE EUSKARA BIZI leloa duten mahai-gainekoak, kartelak...

## HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

### EGIN ZURE ESKAERA



94 415 22 52



gehi@getxo.net



# Eroan euskaraz

**Rist-rast irabazi!**

**Euskaraz erosten duzun bakoitzean  
"rist-rast irabazi" bat eska ezazu eta...**

**opari hau zeuretzat!**

Erosketa-poltsa



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO



EUSKARA BIZI



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia